


Bergarako astekaria

Berrigara



Berriro ere martxan

Gorlako igoera

“EZ DUZU BESTE EZER BEHAR MODAN IBILTZEKO.”

CLAUDIA SCHIFFER.



CITROËN

Xsara
coupé

AZKEN BELAUNALDIKO AMETSA

Hil honetan aurreztu 400.000 pezetara arte Xsara Coupé bat erostean

ZATÓZ ETA PROBATU GURE INSTALAZIOETANI!

ION AUTOAK

Amillaga 36, Bergara Tf. 943 76 47 49 / 73



GESTIO ESKOLA

Jakitez, Ekitez,... eta Izatez



IKASLE ETA GURASO INTERESATUENTZAT: ESKOLAREN AURKEZPEN SAIOA, ENPRESARI ETA IKASLEEN ESPERIENTZIEEN BITARTEZ

EKAINAREN 8an, ARRATSALDEKO 7etan
GESTIO ESKOLAKO ARETO NAGUSIAN

ETORKIZUNARI BEGIRA	• Zer?	• <i>Gestiogintza eta Enpresa Zuzendaritzarako goi mailako ikasketa berritzailea</i>
	• Nola?	• <i>Eskolaren bezeroen zerbitzura: Ikasle, Zuzendari, Enpresari eta Gizarteari zuzendua Beraien aholku, aportazio eta partaidetza bultzatuz</i>
	• Emaizak	• <i><u>I. promozioiko ikaslego osoa (96-97 kurtsoa) lanean ari da</u></i>

berdintasunean



GESTIO ESKOLA
IMH - San Roke Auzoa, 1
Tel: 943 74 41 32 / Faxa: 943 74 41 53
E-mail-a: susana@fmh.es



KALITATEAREN
SUSTAPENARIAN
EUSKAL
IRASKUNDEA

rekin lankidetzan dihardu

Marey eta Bartolin kasuak

Ane Miren Lizarralde / Kazetaria



Hasi da, azkenean, Epaitegi Gorenean Marey kasua epaitzen. GAL taldekoekin zerikusi haundiagoa edo txikiagoa izan zuten 12 pertsona epailearen aurrean eseri dira dagoeneko eta gauzak behar diren bezala joatea espero baldin badugu ere, ez zaigu zalantzarik falta. Esan, esan, akusatuek ez dute ezer berri askorik momentuz, baina argiren bat piztuko delakoan gaude. Hori preskripzioaren alde dauden eskakizunak onartzen ez badira, preskripzioaren gaia eztabaidatzeko momentua oso garrantzitsua izango delako ez bakarrik Marey kasuaren amaiera ikusteko, baita GAL taldeei leporatzen dizkieten beste kasuetan zer gertatuko den ikusteko ere.

Aste batzuk beharko ditugu oraindik antza-emateko epaiketari, eta orain arte ikusitakoa ikusita, Jose Barrionuevoren deklarazioaren zain gelditu gara. Ikusi behar, era berean, Felipe Gonzala-

lezek -lekuko gisa deklaratu du zer daukan aitortzeko epaileari. Noiz eta nola izango den finkatzeke dago.

Aurrera, bada, epaiketa eta aurrera ere Bartolome Rubia La Carolinako zinegotziak egin duena. Nahiz eta zalan-

“Iturgaitzek argi eta garbi erakutsi digu, berriz ere, non dagoen eta zein bide hartu duen politika munduan. Hala eta guztiz ere, ez ditu entzun, publikoki behintzat, entzun behar zituenak. Ezin izango da kejavu oraingoan; alderantziz izango balitz...”

tza gutxi egon bere buruaren bahiketa asmatu zuela, berak bere bertsioari eutostera, daletxetik bota ezinik.

“Bartolin” kasuak nahikoa barre sortarazi du, eta suposatzen dut Andaluzian milaka izango direla dagoeneko Rubiaren kontura atera dituzten txistetak, baina Carlos Iturgaitzek “bahiketa-aren” egunean egin zituen adierazpenak ez ziren barregarriak, penagarriak baizik. Argi eta garbi erakutsi digu, berriz ere, non dagoen eta zein bide hartu duen politika munduan. Hala eta guztiz ere, ez ditu entzun, publikoki behintzat, entzun behar zituenak. Ezin izango da kejavu oraingoan; alderantziz izango balitz...

Pentsatzen dut lezioa ikasita izango duela hurrengorako ahoa ireki aurretik bururatuko zaiola telefonoz deiren bat egitea konfirmazioaren bat lortzeko. Errazena komunikabideei errua botatzea da. **B**

barruan



Alberto Ormazabal

Correoseko langilea

“Merkatu bat ziurtatu nahi dugu. Gure lanpostuei eusteko borrokan gaude”

8. orrialdean.



Agustin Aranzabal

Futbolaria

“Mundialerako faboritoak betikoak dira. España multzo horretan egon daiteke”

21. orrialdean.



Imanol Larrañaga

Larrañaga autoeskolakoa

“Criville eta Checaren artean, Checa; baina mundiala Doohanek irabaziko du”

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1968. Maiatzaren 31n Eskoriatza-Mekolalde trenbide-zatiari eusteko proiektua idatzi eta aurkeztu zuten bailarako udalek, trenbideko langileak kalera bidali eta handik hilabetera. Uztailaren 10ean trenbide-enpresak eta Lankide Aurrezkiak beste proiektu bat aurkeztu zioten Mopu-ri. Batek ere ez zuen aurrera egin.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1899. Ekainaren 4ean, "El Correo Vasco" egunkari abertzalea jaio zen Bilbon.
1973. Ekainaren 5ean, Lasarteko Michelin lantegiko 3.000 langile kaleratu zituzten.
1979. Ekainaren 3an, manifestazio antinuklearrean ari zelarik, Tuteran Gladys del Estal hil zuen Goardia Zibilak.

MUNDUAN GERTATUA

1973. Ekainaren 1ean, Greziako Errepublikak aldarrikatu zen.

z o r k e t a k

BONO LOTO

Eguakitzza 29
18-22-25-40-44-48 (osag.7/er.8)
Astelehena 1
9-20-21-37-38-49 (osag.23/er.6)
Martitzena 2
2-3-4-17-37-44 (osag.34/er.4)
Eguaztena 3
12-13-23-24-37-42 (osag.29/er.1)

PRIMITIVA

Zapatua 30
14-15-16-25-26-45 (osag.9/er.7)
Domeka 31 Gordoak
6-8-28-33-40-47 (osag.38/er.1)

ONCE


Eguakitzza 29: 17.113 (K. seriea: 150)
Astelehena 1: 60.306
Martitzena 2: 50.705
Eguaztena 3: 70.675

BESTE BATZUK

Bedelkar, harakinak: 0306





Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Astebukaeran hodeiak nagusituko zaizkigu zeruan eta eurria egingo du. Eguakitzean ekaitzak jo dezake eta zapatu eta domekan eurria egingo du tarteka, tenperaturak behera egingo du eta haizeak iparretik joko du.

Ilargiaren aldiak

-  Ilgora: ekainak 2
-  Ilbete: ekainak 10
-  Ilbehera: ekainak 17
-  Ilberri: ekainak 24

Eguzkia

Domeka, ekainak 7



Sortu: 05:47



Gorde: 20:45

Temperaturak eta eurria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	eurria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 28	17	10	1,4
Eguakitzza 29	20	9	21
Zapatua 30	18	10	0,2
Domeka 31	23	9	1,8
Astelehena 1	26	14	3,2
Martitzena 2	22	12	-
Eguaztena 3	25	12	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Ardierren

Ardierrena. Beti atzean gelditzen denari esan ohi zaio. Artaldekoa gogora ekarriz jakina..

- *Emen dator, alakon baten, gure ardi-errena.*



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Usain gozoak

New Jerseyko (Estatu Batuak) enpresa batek *ScentTrec* trankulua sortu du. *ScentTrec*-ak usain gozoak bereganatzeko gaitasuna du eta konpainiaren asmoa jasotako usainokin perfumeak egitea da. Perfume horietako batzu Costa Ricako basoetako likenetan ur-jauziek eragindako usainetik sortuko dira eta beste batzuk New Yorkeko garbategietako linu plantxatu berriarenetik.

Farmaziak

Eguakitzza 5:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Zapatua 6:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Domeka 7:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Astelehena 8:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Martitzena 9:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Eguaztena 10:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Eguena 11:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Ogia

Domeka 24: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	000
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 45
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 60

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 50
Erregistroa	943 76 13 13
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuen Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 25 65

hildakoak

BERGARA

Marcelino Martinez Gonzalez
Maiatzak 20, 75 urte.
Marcelino Moreno Gonzalez
Maiatzak 22, 82 urte.
Beatriz Elguero Losada
Maiatzak 25, 83 urte.
Victor Gomez Boyer
Maiatzak 27, 28 urte.
Maximo Gallastegi Gallastegi
Maiatzak 30, 76 urte.
Toribio Aranguren Campos
Maiatzak 31, 88 urte.
Maria Gisasola Sorrondegi
Ekainak 1, 87 urte.

ANTZUOLA

Jose Mari Gabilondo Aranzabal
Maiatzak 22, 45 urte.
Karlos Zubikarai Aranbarri
Maiatzak 25, 93 urte.

jaiotakoak

BERGARA

Alazne Rodriguez Etxeberria
Maiatzak 13
Tamara Zafra Liberal
Maiatzak 20
Mikel Gutierrez Beitialarrangoitia
Maiatzak 21
Josu Agirre Garmendia
Maiatzak 22
Manex Bengoa Arregi
Maiatzak 25

ANTZUOLA

Xabier Martin Madariaga
Maiatzak 24

zorion agurrak



Mirian Gomez
Maiatzaren 19an
25 urte. Zorionak!
Lagunak.



Mikel Berasategi
Maiatzaren 18an
27 urte. Zorionak!
Lagunak.



Ane Alberdi
Maiatzaren 21ean
5 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Ane Miren Etxeberria
Maiatzaren 23an
15 urte. Zorionak!
Lagunak.



Maika Gallastegi
Maiatzaren 14an
2 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Malen Gallastegi
Maiatzaren 31n
4 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Jon Leibar
Maiatzaren 24an
9 urte. Zorionak!
Etxekoak.

*Zorion agur
gehiago
8. orrialdean.*

ESKER ONA

Beatriz Elguero Losada

Juan Garmendiaren alarguna
Bergaran hil zen 1998ko maiatzaren 25ean, 83 urte zituela.

Amamandako:

*Zure maitasunaren fruituak
ez ditu beriotzak eramango;
maitasunaren zapora goxo eta urtsuak
zure fruitua garen biloben
bibotzetan iraungo baitu.*



Seme-alabak: Luordes, Jesus, Amaia eta Miguel
Bilobak: Lorea, Gaizka, Arantzazu eta Irantzu.

Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi eskerrik asko.

ESKER ONA

Maxima Anduaga Letamendi

Agarre baserrikoa

Bergaran hil zen
1998ko maiatzaren 12an,
83 urte zituela.




*Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi
eskerrik asko familiakoen partez.*

ESKELA

Victor Gomez Boyer

Oñatin hil zen 1998ko maiatzaren 27an, 28 urte zituela.

*Negar egin nabi nuke itsutu arte
jaiki deneko hondoratzen den bizitza
honegatik.*



Udal Euskaltegiko ikasle eta langileak

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunaak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

MUSIKA

► **Yngwie Malmsteen** zapatuan 22:00etan Jamen.

► **Benito Lertxundi**ren kontzertua gaur 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

ERAKUSKETAK

► **Dorleta Biainen** margo erakusketa Donostiako Amara auzoko Kimboa tabernan (Podavines, 4).

► **Manu Muniategiandi-koetxearen** margo erakusketa Donostiako DV Galerian domekara arte.

► **"Bergara Gerra Zibilean. 1930-1939"** erakusketa Udaletxean.

► **Simon Arrieta** zeramika taldearen lanak Kultur etxean domera arte.

JAIALDIA

► Arrasateko **Arteta base-riaren** (suteak erre zuen) aldeko jaialdia bihar zapatua 22:00etan Amaia antzokian. Egaña, Sarasua, Mañukorta eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak; Anje Duhalde, Mikel Markez, Aitzol Mujika, Iosune eta Edurne abeslariak; Jardun eskolako trikitilariak, Ines eta Naiara arrasatearrak eta Xamatx eta Lore gazteak taldeak.

MUSIKA

Siniestro Total


Noiz: gaur eguakitza 22:30etan

Non: Jam aretoan

Sarrerak: 1.200 PTA aurrez, 1.500 takilan

Siniestro Total talde galziarraren rock *ganberroa* iritsiko da gaur Jam aretora. 1982an "¿Cuando se come aquí?" euren lehendabiziko diskoarekin ezagutzera eman zirenetik, hainbat disko kaleratu eta hamaika jira burutu dituzte galziarrek eta Estatuko talderik arrakastatsuenetakoa bihurtu dira. Gaur, "Sesion vermu" azken diskoko abestiak aurkeztearekin batera, beren errepertorioko kanturik ezagunenei ere errepaso emango diote (tartean "Galicia canibal", "Miña terra galega", "Bailaré sobre tu tumba" edota "Tipi, dulce Tipi". Julian Hernandez kitarrajole eta kantaria-ekin batera, Xavier F. Soto (kitarra eta koroak), Segundo Grandio (baxua eta koroak), Angel Gonzalez (bateria) eta S. Beltran (saxoa eta gaita) izango dira Jameko eszenatokian. Euren betiko hainbat kanturi ikutu berriak eman dizkiete eta, beraz, ikusleek "Camino de la cama" edota "Ayahtolah" ezagunen bertsio berriekin gozatuko dute gaur.

Taldearen ezaugarrietako bat bere abestietan islatzen duten ironia eta garraztasuna dira. Bestalde, zuzeneko emanaldietan publikoarekin hain gogoko duten



Galziarren rock *ganberroa* zapatuan Jamen.

kontaktua lortzen da eta bere emanaldi guztiak festa bat bihurtzen dira. Gaur, beraz, Siniestrorekin ordu t'erdi juergazalea igarotzeko aukera izango dute Jamera hurbiltzen direnek.

Talde galziarraren aurretik, Deskontrol taldearen abestiak ezagutzeko aukera izango da gaur Amilagan. **B**

IKASTAROAK

► **Txalaparta** ikastaroa, ekainaren 4tik uztailaren bukaerara arte, eguenetan 19:00etatik 21:00etara Kartzela Zaharrean. Irakaslea: Andoni Goiti.

Jardun Elkartek antolatuta. Plaza mugatuak. Argibideak 943 76 08 19 telefonoan.

► **Islada bideo tailerrak** Mitxel Gaztanbidek ("Vacac") emango duen gidoiaritzaz ikastaroa (50 ordu) iragarri du uztailaren

6tik uztailaren 21erako (goizez 9:30etatik 13:30etara). Matrikulak 15.000 pezeta balio du. Bestalde, edizio ikastaroa (50 ordu) izango da urriaren 23tik azaroaren 27ra. Argibideak Kultur Etxeko bideogelan.

**A
R
R
A
N
O**

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 06

► **Tai-chi** ikastaro intentsi-boa astebukaeran (ekainaren 6an eta 7an) Zestoako Sastarrain baserrian. Argibideak eta izen-ematea 943 71 41 91 telefonoan.

LEHIAKETAK

► **Kirol Argazkien VIII. Lehiaketa**, Euskadin bizi den edozein afizionaturentzat. Lanak ekainaren 16ra arte jasoko dira Udal Kirol Zerbitzuan. Argibideak bertan, 77 91 67 telefonoan.

DEIAK

► **Jubilatuentzako bidaia** Lisboako "Expo" a bisitatzera. Irailaren 27ra bitartean hainbat txanda izango dira. Irteerak (abioiez) domeketan izango dira eta itzulerak eguenetan. Pertsona bakoitzeko, 52.000 pezeta. Izen-ematea eta argibideak Marsans bidai-agentzian, 943 45 65 93 eta 943 42 38 38 telefonoetan. Dirulaguntza jasotzea tokatzen zaienek jubilatuetan egin beharko dute eskaera.

► **I. Igartza Literatur Sorkuntzako beka** idazle berrientzat. Proiektuak ekainaren 30a baino lehen bidali behar dira helbide honetara: Beasaingo Udaletxea, Euskara Zerbitzua. Loinazko San Martin Plaza. 20200 Beasain. 943 88 90 94.

► **Odol ateraldia** eguaztean, hilak 10, 18:30etatik aurrera Seminarioan.

► **Alpino Gorlak eta Pol-Polek** Pirineotara, Logibar-Belagoara mendi irteera antolatu dute ekainaren 13 eta 14rako. Izen-emateko (8.000 pezeta) azken eguna ekainaren 11 izango da.

► **Ekainaren 14ko Udaberriko Kontzertuaren** osteko bazkari txartelak Musika Eskolan salgai martitzenera arte. Nagusiek 2.200 pezeta eta gatzetxoek 1.600.

► **Rolling Stones** taldea ekainaren 18an San Mamesen ikusteko irteera antolatu du Jam-ek. Bidaia eta sarrera, 8.000 pezeta (7.500 Jam Klubeko bazkideentzat). Izen-ematea 943 76 35 81 telefonoan.

► **San Joxepe** jubilatuen elkarteak ekainaren 8tik 11ra Asturiasen egonaldia antolatu du. 19.900 pezeta. 943 76 21 40.

KINTADAK

► **1958an** jaiotakoen afaria ekainaren 20an, Antxonin. Izen-ematea Intxorta tabernan edo Antxonin bertan.

► **1953an** jaiotakoen afaria uztailearen 4an, Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezeta-ko aurrerapena) Antxonin bertan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades Mercuryrising (Al rojo vivo)
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema Hard Rain
Eguakitza: 22:00.

Heredarás la tierra
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:00.

EIBAR. Unzaga Sombras de sospecha
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto Novio de alquiler
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ONATI. Santana U.S. Marshals
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola Desmontando a Harry
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00
Astelehena: 20:00.

Celuloide oculto
Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztartxo Heredaras la tierra
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.

Mejor... imposible
Domeka: 16:45, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

MERCURYRISING (AL ROJO VIVO)

Zuzendaria: Harold Becker.
Aktoreak: Bruce Willis, Alec Baldwin, Miko Hughes eta Robert Stanton.

Sekretuzko operazio batean porrot egin ondoren, Art Jeffries FBIko agentea nahiko baztertuta daukate eta errutinazko lanak agintzen dizkiote bakarrik. Horrela, modu oso susmagarrian hil duten senar-emazte batzuen semearen desagerketa ikertu beharko du, berriro ere arrisku handiko egoeretan murgilduz. Mutikoak kodigo militar sekretu bat deszifratu du eta informazio hori ez komeni jakitea...



HEREDARAS LA TIERRA

Zuzendaria: Jocelyn Moorhouse.
Aktoreak: Michelle Pfeiffer, Jessica Lange, Jason Robards.
Bere herrian ospe handia duen lurjabe zahar batek, dituen lurrak bere alaben artean banatzea erabaki du. Itxura batean alabek asko maite dute aita baina oraindik ere gogoan dute txikitan eragin zizkien umilazioak. Orain kontuak eskatzeko ordua iritsi da...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



Era ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erausketa: Masterreka 14 behea BERGARA
Tel.: 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19



Mikel Fernandez
Ekainaren 11n
4 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Iker Azkargorta
Maiatzaren 26an
10 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Begoña Egibar
Ekainaren 8an
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



Oihana Alzelai
Ekainaren 8an
5 urte. Zorionak!
gurasoak eta
familiakoak.



Jesus Fernandez
Ekainaren 11an
39 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Leire Fernandez
Ekainaren 8an
12 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Felisa Larreategi
Maiatzaren 26an
66 urte. Zorionak!
Biliba Olaia eta Ai-
tor eta familiakoak.



Anetxi
Maiatzaren 23an
16 urte. Zorionak!
"2 metro"1
Koadrilakoak.



Jesus Mari Valor
Ekainaren 4an
14 urte. Zorionak!
Aita.



Laura Frias
Maiatzaren 30ean
3 urte. Zorionak!
Gurasoak, Jon eta
Nekane.



Nagore Igarza
Maiatzaren 27an
4 urte. Zorionak!
Familiakoak eta
berezikoi Aimar.



Ibai Gonzalez
Maiatzaren 29an
15 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Xabier Azurmendi
Ekainaren 8an
11 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Joane Amasorrain
Ekainaren 5ean
6 urte. Zorionak!
Amaia eta Itziar.



Joseba Larrañaga
Maiatzaren 21an
15 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Patxi Larrañaga
Maiatzaren 17an
56 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Mikel Irizar
Maiatzaren 27an
12 urte. Zorionak!
Gelako neskak.



Roberto Gil
Ekainaren 6an
12 urte. Zorionak!
Gelako neskak.



Ohiane Iureta
Maiatzaren 28an
12 urte. Zorionak!
Miren, MAialen eta
etxekoa.



Ander Plazaola
Maiatzaren 30ean
9 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Yaiza Plaza
Ekainaren 5ean
6 urte. Zorionak!
Gurasoak eta
ahizpa.



Maider Barrutia
Ekainaren 5ean
14 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Leire Martin
Ekainaren 3an
15 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Ane Cantero
Maiatzaren 22an
urtebete. Zorionak!
Familiakoak.



Jon Igartua
Ekainaren 16an
12 urte. Zorionak!
Gelako neskek eta
berezikoi June.



Aitor Kortazar
Ekainaren 7an
12 urte. Zorionak!
Lagunak.



Maite Urzelai
Maiatzaren 25ean
10 urte. Zorionak!
Boluko
lehengusuak.



Raul Gallardo
Ekainaren 10ean
19 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Nerea Agirre
Ekainaren 5ean
6 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Ane Vicente
Ekainaren 11n
5 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Ane Larrañaga
Maiatzaren 24an
13 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Iñaki Beristain
Maiatzaren 21ean
6 urte. Zorionak!
Osaba-izebak.



Nerea Aizpiri
Ekainaren 17an
23 urte. Zorionak!
Katalina, Hodei,
Olaia, Aitzol, Aitor.



Begoña Azkarate
Ekainaren 1ean
53 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Ane Zangitu
Ekainaren 1ean
3 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Patxi Vallejos
Maiatzaren 11n
29 urte. Zorionak!
Nerea eta Andoni.



Maialen Belastegi
Maiatzaren 24an
3 urte. Zorionak!
Gurasoak eta anaia.



Ibon Leibar
Maiatzaren 20an
12 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Aitor Aranzabal
Maiatzaren 21ean
14 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Alvaro Aranzabal
Maiatzaren 23an
10 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Aitor Amenabar
Maiatzaren 28an
11 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Lorea Franco
Ekainaren 7an
4 urte. Zorionak!
Anaia Asier eta
gurasoak.



Itziar Aranguren
Maiatzaren 31n
38 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Nekane Aranzabal
Ekainaren 3an
19 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Joseba Sasigain
Maiatzaren 29an
12 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Nekane Muñoz
Maiatzaren 24an
4 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Ikerne Rodriguez
Maiatzaren 24an
8 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Mikel Aristi
Maiatzaren 23an
5 urte. Zorionak!
Familiakoak.

Correoseko langileek apirilean ekin zioten Posta Legearen aurkako protesta ekitaldiei. Datorren asteko martitzen eta eguaztenerako ere greba egunak deitu dituzte. Bergarako bulegoan lanean ari den Alberto Ormazabal ELAko delegatuarekin hizketan izan gara.

G. Zein da protesten arrazoi nagusia?


E. Posta Legeaz aparte badaude afektatzen gaituzten beste bi lege; funtzionarioen erregulazioa eta funtzio publikoarena. Baina Posta Legea da gehien kezkatzen gaituena. Lege horrek oinarritzko zerbitzu batzuk (ia mundu osoarekin kontzertatuta daudenak) merkatuko arazoizko prezioekin betetzera behartzen gaitu. Correosen bitartez Ingalaterrara karta bat bidaltzeak, adibidez, 70 pezeta balio du eta konpainia pribatu batekin, berriz, 4.000 pezetatik gora. Zerbitzu hori inolako babes ekonomikorik eman gabe mantendu nahi da. Arazoa zera da: PP alderdiak Europar Batasunak egingo duena baino gehiago liberalizatuko duela merkatua.

G. Zer ekarriko du horrek?

E. Monopolioa kentzea. Operadore pribatuentzat ez legoke murriztutako zona-rik. Beraz, batez ere Europa iparraldean indar handia duten operadoreak (UPS esate baterako) indar handiz sartuko lirатеке hemen, indar ekonomiko handia daukate atzean eta beraz guk egiterik ez dugun zerbitzu batzuk egiteko gauza dira. Gure borroka merkatu bat ziurtatzea izango litzateke. Adibidez 1-20 Kg. bitarteko paketeekin lan egitea kentzea nahi ziguten eta

ALBERTO ORMAZABAL
Correos-eko ELAko delegatua

“Merkatu bat ziurtatu nahi dugu. Gure lanpostuei eusteko borrokan gara”



Alberto Ormazabalek 17 urte daramatza Correosen lanean.

gauza bera *publicorreo* (prezio merkean irtetzen diren bolumen handiak; Telefonicako fakturak, banke-txeetako gauzak...) deritzan zerbitzuarekin. Lanpostuei eusteko borrokan gara.

G. Protestaldiekin jarraituko duzue?

E. Oraingoan, datorren astean, ekainaren 9an eta 10ean, greba egingo dugu

“Posta Legearekin merkatua guztiz liberalizatu nahi da. Operadore pribatuentzat ez legoke murriztutako zona-rik, indar handiz sartuko lirатеке”

eta ekainaren 9ra bitartean mobilizazioak izango dira. Plataforma Sindikal bat eratu genuen eta 12 puntutan oinarritzen dira gure eskakizunak. CC.OO irten egin da plataformatik gobernuak eskaintakoa ondo iruditu zitzaiolako. Beste guztiok grebak egiten ari gara.

G. Konponbide bat lortzeko itxaropenik baduzue?

E. Ekainaren 10ean Senatuaren erantzuna jakingo dugu. Jakingo duzueneguz gehiengoa talde popularrarena da eta beste alderdi batzuekin elkarrizketak izan dira. Guk zera eskatzen dugu: gure lanpostuak ziurtatzea eta lan baldintzak hobetzea.

G. Zein da zuen indarra?

E. Efikaziari begiratuta, Correosek eskaintzen duen zerbitzua bigarrena da Europako beste herrialdeekin konparatuz gero. Guztia hobetu daitekeen arren, postari kopurua eta postari bakoitzak urtean egiten dituen entregak zenbatuz gero oso egoera onean gaude bestekin konparatuz. Hori bai, 65.000 funtzionario eta 12.000 batze puntu dituen azpiegitura da. Seurrek 300 batze puntu ditu eta sekulako publizitatea ematen diote horri... Baina Correos baxter guztietara iristen da, punturik galduenera ere bai. Publiko den guztiak ez dauka gaizki funtzionatu beharrik eta pribatua den guztia ere ez dezagun pentsa *pamazea* denik.

G. Bergarako kasuan, protestek asko eragin diote zerbitzuari?

E. Lana pilatu zaigu, nahiz eta hiriburuetan egoera askoz ere larriago izan. Kalleko jendeak nahiko ondo ulertu digu eta bistan geratu da jendeak betiko postariaren figura maite duela, zerbitzua askoz pertsonalagoa baita. B



Gobernuz Kanpoko Deba Garaiko bost taldek zabaldu dute denda Arrasateko Hiper Eroskin.

Bidezko Merkataritza denda Hirugarren Munduaren alde Arrasateko Hiper Eroskin zabaldu dute denda

Hirugarren Munduko garapen proiektuetan lanean diharduten Gobernuz Kanpoko Deba Garaiko bost erakundeek "Harreman" izeneko denda zabaldu zuten astelehenean Arrasateko Hiper Eroskin. Garatu barik dauden herrialdeetan ekoiztutako produktuak salduko dira denda horretan eta helburua, berdintasunean oinarritutako harreman komertzialak sortzea eta bultzatzea da.

Gure arten berritzaile den proiektu honen bultzatzaileek diotenez, Bidezko Merkataritza denda honek ezartzen dituen filosofia eta jarduteko bideak zeharo berriak dira, "bai produzitzailerarekiko duen begiruneagatik eta baita kontsumitzailearekin sotzen duen harreman sendoagatik".

Bidezko Merkataritza denda, goizeko 9etatik ordu bata arte eta arratsaldeko 4etatik zortziak arte izango

da zabalik, astelehenetik eguakitsera. Zapatuetan, gaueko 9ak arte. Bertan, 30 mota ezberdineko janari eta edariak, kotoi eta artilezko jantziak eta artisautza-gaiak egongo dira salgai.

Honako hauek dira proiektua martxan jarri duten Hirugarren Munduko taldeak: Aretxabaletako "Hiruax", Arrasateko "Harreman", Bergarako "Fisc", Eskoriatzako "Hatxorrotx" eta Oñatiko "Banoia". B

Kontsumoa eta Euroa aztergai

San Joxepe jubilatuen elkarteak kontsumoa eta Euroari buruzko jardunaldiak antolatu ditu datorren asterako. Eusko Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaritzak bultzatu ditu jardunaldiak eta astelehenetik, ekainak 8, eguakitsera arte izango dira.

Astelehenean, 17:30etan, Luis Mari Corderok kontsumitzaileen eskubideei buruz berba egingo du jubilatuen egoitzan eta, eguaztenean, ordu eta toki berean. Euroari buruz jardungo du Francisco Jimenezek. Bestalde, kontsumitzaileen eskubideak nola defenditu eta Euroa nola izango den aztertuko dira ekainaren martitzenean 17:30etan. Parte hartzeko izena eman behar da jubilatuen egoitzan (gehienez 25 lagun onartuko dira).

Azkenik, eguakitzean Baqué kafe enpresak Durangon duen lantegira bisita gidatua egingo da. Irteera 15:00etan egingo da autobus geltokitik eta izena eman behar da aurretik. Jardunaldietan San Joxepe jubilatuen elkarteak bazkideek har dezakete parte. B

Deco-Textil ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Angiozarko Eduegi baserria ez botatzeko eskatu du Udalak

Udalbatzak joan zen maiatzaren 8an hartutako erabakia, hau da, Abiadura Haundiko Trenbidearen trazatuari aurkeztutako alternatiba, berrestea erabaki zuen joan zen astean. Bergarako Udalak eta Deba Garaiko Mankomunitateak trenbidearen trazatua Angiozarko bailaratik egin beharrean Epeletik egitea proposatu dute, Epelen jende gutxiago bizi delako.

Bestalde, azkenean, Abiadura Haundiko Trenaren trazatua Angiozarko bailaratik egitea erabakiko balitz, honen aldaketa proposatu du Udalak, bestela, trazatua hasierako proiektuan jasotzen den moduan egingo balitz, Aldai-Egia auzoan dagoen Eduegi baserria bota egin beharko litzaiteke eta. Eduegi baserriak



Eduegi baserriak balio historiko-arkitektoniko handia dauka.

duen balio historiko-arkitektonikoa kontutan izanik, trenbidearen trazaketa aldatzea eskatu du Udalak.

Eduegi baserria Eusko Jaurlaritzako Euskal Herriko ondare historiko-arkitektonikoaren behin-behineko

inbentarioan jasota dago eta Bergarako Arau Subsidiarioetan, bertako interes historiko artistikodun Ondasun higiezinaren katalogoan ere jasota dago, babes maila ertaina aplikatzen zaienen taldean. B

Barrenkalearen atzealdeko lurren zesioa

Barrenkalea 17ko atzealdean eraiki bareko 240 metro karratuko lursailaren zesioa onartu du Udalbatzak. Irala kaleko lursail horretako jabeek, Lazkano Oruesagasti anai-arrebek, 240 metro karratuko eremua eraikuntzatik banatu eta Bergarako Udalarari zeditu diote. Halere, Irala kaleko urbanizazio-lanak egiterakoan, Irala kaletik eraikuntzarako lehenengo pisura dagoen sarrera errespetatuko du Udalak. B

Euskara jakitea eskatuko zaie frontoiko tabernako errentariei

Udal Pilotalekuko taberna errentan hartzeko euskarazko froga egingo da, orain dela bi asteko BERRIGARAN kontrakoa adierazi bagenuen ere; ahozko bigarren perfila eskatuko da. Halere, aurkeztutako eskarien artean, euskaraz dakien inor ez badago, meritu gehien dituenari adjudikatuko zaio taberna. B

ALDI BATERAKO ENPRESEN KONTRA

Victor Gomez, joan zen eguaztenez Oñatiko Txintxurreta S.A. enpresan lan istripuan hil zen bergarar gaztearen heriotzaren kontra protesta egiteko, kontzentrazioa egin zuten LAB, ELA eta ESK-Ezker Sindikalekoek. Victor Gomez, OTEIC aldi baterako enpresak kontratatu izanagatik egin zuten protesta sindikatuek eta Txintxurreta S.A. enpresa kritikatu zuten, langileak kontratatzeke aldi baterako enpresak erabiltzearen. B



Zure inbertsioak errentagarri egiteko, utz ezazu estatuko lehenengo gestore independenteak bidera zaitzan.

<http://www.abasesores.es>

AB ASESORES



Ondo inbertitzea denon esku dago

Santallaitz 6
S.Lorentzo industrialdea
Tf. 943 76 54 35
20570 BERGARA

Berrigara

326 zenbakia.
1998ko ekainaren 5a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97.
Faxa: 943 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugaldé, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Antonio Ruiz.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrogaroko
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaureritzako
Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuaz: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

IRLANDAN BAI, EUSKAL HERRIAN ERE BAI

Orain dela aste batzuk irlandarrek euren etorkizunaz erabakitze erreferendum historikoa egin dute. Bozka hone-tatik, irlandar herriak, sujetu subirano gisa, zer nolako Irlandan eraiki nahi duen erabakiko du. Horretan datza bozka honen garrantzia eta funtsa.

Bozketa, Stormonteko akordioaren ondorioz etorri da, gatazkan parte hartu duten sujetu guztien parte hartzeaz eta aurrealdintzarik gabeko elkarrizketa politikoetan oinarriturik burutu den prozesuaren ondorioz.

Aurretik urrats asko eman dira bidean, urtetako lanaren emaitza izan da akordioaren sinadura eta orain dela gutxi burutu den erreferenduma: SDLP eta Sin Fein-en arteko elkarrizketek jarri zuten prezesua martxan. Argi izan zuten abiapuntua non zegoen: nazionalisten arteko gutxieneko akordio batzuetara iristea beharrezkoa zen bake prozesu bati hasiera emateko. Jarrera amankomunak hitzartu zituzten beren artean: edozein soluzioz ugarte osoa izango zuen kontuan eta Ipar Irlandako sei konterriak gaitzitu zituen. Autodeter-

minazioaren aldeko apostua egin zuten.

Gobernu Irlandarrak baiezia eman zion alderdi nazionalisten arteko hitzarmenari. Ondoren etorri zen britainiar gobernuaren deklarazioa, non gatazkaren erro politikoak onartzeko zituena, IRaren suetena... Hala eta guztiz ere, prozesuak gorabehera haundiak izan ditu urte hauetan, azken uneraino luzatu diren gorabeherak, baina alde guztiek garbi izan dute prozesu osoan zehar soilik elkarrizketa eta akordio bidez etorriko dela konponbidea.

Erreferendumak ate berri bat zabaltzen du, beraz, bereziki azken 30 urteotan irlandarrek bizitako gatazka egoera ezin larriagoa gaitzitzeko aukera ekar dezakeena. Orain dela aste batzuk bozkatu zen akordioan hainbat urrats aurreikusten dira zentzu honetan: ugarte osoa bilduko duen instituzioa dela, desmilitarizazioaren gaia, presoena..., irlandarrek, eta soilik irlandarrek, bideratuko dituztenak, datozen hilabete eta urteetan.

Etorkizunari begira une historikoa bizi du Irlandak, urtetako gatazka eta bidegurutzea gaitzitzera datorrena. Honen guztiak, noski, ikasgai abe-

ratsak ekarri dizkigu guri. Hauexek: Euskal Herriak ere bizi duen bidegurutzea argitu behar duela, alegia, egungo gatazka egoeratik fase berri baterako bidea egin behar duela, beti ere, herri gisa zor zaizkion oinarritzko eskubide demokratikoetan, hots, autodeterminazioa eta lurraldetasuna, oinarritu behar duen bidea.

Honetarako funtsezkoa izango da, egungo bide politzial eta errepresibo oro baztertua, aurrealdintzarik gabeko elkarrizketa prozesu bati ekitea, sujetu guztien artean. Funtsezkoa izango den bezala, demokratia eta abertzaleon artean lan amankomuna garatzea, negoziazio prozesu batean sartu aurretik, herri honi herri gisa aurrera egiteko beharrezkoak zaizkion gutxieneko akordioetara iritsiz.

Irlandari irabaztea dagokion, eta ziur gaude irlandar herria irabazte aterako dena. Bihar guri dagokigu irabaztea. Irlandako akordioa eskuetan hartuta, joan gaitezen gurea lortzen. Irlandan bai, Euskal Herrian ere bai.

Berrogaroko
Herri Batasuna

tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

Urtean zehar azterketa medikorik egiteko ohiturarik badaukazu?



Manuel Gabilondo

Bai, urtean behin joaten naiz. Aspaldian bajarekin nago baina enpresatik egiten digute, nahiko konplexoa: analisiak eta froga ezberdinak.



Silvana Caviglia

Bai, egiten dut. Diabetikoa naiz eta hiru hilabetetik behin medikuarengana noa. Osasuna zaindu beharra daukat; baina urtean behin azterketa egitea ondo dago.



Roberto Urbistondo

Ez. Soldadutza egin nuenetik ez dut azterketa medikorik egin. Pentsatzen dut ondo nagoela eta horrela jarraitzen dudan bitartean, ez naiz asko arduratzen.



Araceli Baeza

Ez, sekula ez. Ginekoloarengana joaten naiz baina bestelako azterketarik ez dut egiten. Hori bai, ahal dudan neurrian osasuna zaintzen ahalegintzen naiz.



Satxa Zeberio

Ez. Ondo nago eta beraz, oraingoaz, ez daukat horren beharrik. Dena buruan dago; ondo baldin bazaude zertarako egin azterketa medikoa, ba?



Gloria Riera

Ez, ez daukat azterketa medikoak egiteko ohiturarik. Gaizki sentitzen naizenean, orduan bai medikuarengana joaten naiz baina bestela ez.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Iñaki Mujika herriko txirrinduzale gazte bat dugu eta aste honetan telefonoz deitu digu Lokatzari zorionak emateko Euskal Bizikletaren etapa amaiera antolatze-agatik. Iñakiren ustez, gutxitan izaten dugu goi mailako kirolariak gertutik ikusteko aukera eta eskertzekoa da, beraz, hain maila altuko proba Bergarara ekartzea. Gainera, antolaketa oso ondo joan zen eta eguakitz eta zapatuan ziklismoarekin gozatzeko aukera izan genuela diosku. Iñakik badaki horrelakoak ekartzea ez dela batere erreza baina hurrengo baterako animoak luzatu nahi dizkio Lokatzari egiten duen lan horretan hain ondo jarrai dezan.

■ ikuspuntua: **german larrañaga**

Karibeko auspoa

Joan zen egunean trikitixaren soinu alai eta gitarra entzun nuen Dominikar Errepublikako irratibatean eta bertako kanta hau, nahiz eta tropikalak izan, "hurbila" iruditu zitzaidan. Karibeko herri honetan jaio eta New York-en hazitako dominikar talde batek, "Fulanito" izenekoa, kalera-tutako "Guayando" lan arrakastatsua zen, "perico ripiau" -merengearen alde klasikoena- eta hiletako rap-a nahastuz, "perico rapeau" deritzon musika estilo berria sortu dute.

Eskusoinua dominikar musikan finkatuta izan arren, merenguea sortu eta gero, XIX. mendean, eta komertzial harremanen bidez heldu zen irlara. Europara tabakoa zeramaten itsasuntziek Alema-



natik instrumentu berriak zekartzaten bueltan. Orduan merenguea korda instrumentuz jotzen zen baina oinarri erritmikoa (tanborra eta güira) hain gogorra zen, ezen kordaren melodia estaltzen baitzuen. Arazoa


trikitixak konpondu zuen, auspoak kitarrek eta tiplea baztertu zituen "zaratatsuagoa" zelako. Dominikar jakintsuen esanetan eskusoinuak merenguearen izanahiak mugatu zituen tonu batean soilik jo daitekeelako. Geroago trikitixa bera ere baztertua izan zen saloietara metalezko instrumentuak iritsi zirenean. Halere, auspoa dan-

tzaldietarako erosoagoa zenez herri mailan gertatu zen eta hor darrai. Euskal Herrian antzerako zeozer suertatu zen, trenbidea eraikitzena Suiza eta Alemaniari etorritako langileek ekarri zuten joan zen mendean. Hasierako oztupoak gainditu behar izan zituen -Elizak "infernuko auspoa" baitaiatu zuen-, baina laister euskal kulturaren errotu zen eta "gurea" dela sentitzen dugu.

Akordeoi diatonikoa Austria, Alemania, Italia eta Britainia Handian ere entzun daiteke; Amerikan tex-mex eta ballenatoek erabiltzen dute. Euskal trikitilariak, Kepa Junkera adibidez, esparru horietan ikertzen dabilta. Txalotzekoa da. "Gurea" kontsideratzen duguna gurea bakarrik ez dela konturatzen garenean eta harremanak hazten direnean gauza horiek aberastu egiten dira eta gu ere bai. **B**

■ asteko menua: **zabala jatetxea**

Soufle sorpresa



RAFAEL ZABALA SUINAGA
*Zabala Jatetxe*ko sukaldaria

OSAGAIK (4 lagunentzat)

- 8 arrautza
- 8 azukre goilarakada
- 4 izozki pelota bainilazkoak
- Bizkotxo fin bat
- Ron basokada bat

PRESTAKETA

- Arrautza gorringo eta zuringoak banatu eta zuringoak elur-punturaino irabiatu eta gorringoak azukrearekin ondo nahastu.
- Ontzi batean bizkotxo fina ipini eta honen gainean izozki pelletak jarri.
- Zuringo eta gorringoak nahastu eta izozki gainera bota. Izozkia urtu ez dadin, ontziaren azpian izotzez betetako kazuela bat jarriko dugu.
- Labean 220 gradutan zortzi minutuz eduki ondoren, labetik atera.
- Rona berotu eta souflean ronarekin busti; ondoren azukrea bota eta sua eman.

■ adituen esanetan

Alkoholemia kontrolak

SABIN ZABALETA, *abokatua*

Alkoholemia kontrola trafikoko ziurtasunaren aurkako delitua litzateke; koxea gidatzeko gauza ez izatea, hori da legeak zigortzen duena. Alkoholemia neurtzeko bi metodo daude: odoletan, litro bakoitzeko, 0,8 gr. alkohol izanez gero delitua da eta berdin haizez egindako frogan 0,4 eman ondoren. Haizez egindako frogaren ondoren, odolezko frogak eskatzeko eskubidea dute gidariak. Baina normalena, batean ematen bada bestean ere berdin gertatzea da. Delitua automatikoki zigortzen da epaitegietan. Hala ere, positibo eman duen gidaria kotxea ondo gidatzeko gauza bada, ez dago zigorrik.

Oraingo kode penalean, etxean 8-12 astebukaera bitarteko zigorra edo isuna jaso daiteke. Isunaren kasuan, zigorra 3-8 hilabete bitartekoa da. Egun bakoitzari diru-kopuru bat jartzen zaio (2.000-3.000 PTA) eta gidariaren diru-sarreraren arabera finkatzen da isuna. Dirua pagatu edo hainbat astebukaera etxean pasatu, hori da zigorra. Horrez gain, karneta urtebetetik lau urtera bitartean kenduko digute. Bestalde, kode penal berrian jasotzen denez, alkoholemia kontrola ez egitea delitua da, "desobedientzia larria", eta beraz 6 hilabete urtebetera bitarteko kartzela zigorra jaso daiteke. **B**

■ bergarako gordailutik

GARRANTZIA HAUNDIKO MERKATARITZA

Imanol Sorondo

Egia da Bergarak, inguruko herrien antzera, bazituela bere industriak; batez ere, labanak eta gorazeak egiten ziren hemen. Baina urteetan zehar gure herriari inadar gehiena eman zionetakoa, merkataritza izan zen; izen haundikoa, bertara biltzen ziren inguru zabaleko merkatariek beraien elkarrizketa eta tratuak egitera; bazeuden dozena bat ostatu ere horretarako.

Gasteizekoarekin elkartua, gariak eta lanak ekartzen zituzten hortik eta Gaztela herritik, eta Bergara eta Alzolatik burdina eta arraina eman. Urola eta Deba ibarretako hemeguztietako merkatariek, Markina eta Lekeitiokoak ere bai, gure herrira etortzen ziren; astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan egiten zen merkaturia, eta Gasteizen asteko gaurerako egunetan.



Udaletxeko artxibategian aurkitzen da 1627an Bergarako merkaturian topatu zitekeen gai guztien zerrenda, bere prezioekin: 18 hiri nagusietako oihalak, Segobia, Abila eta Toledokoak, tartean. Sei hirietako zetazko zapiak, Italiako Milangoa, bereziki. Botikan, sendagaien artean, 27 jarabe, 19 eratako olioak, 22 igurtzi mota, 4 txaplasta, 11 ur-zukodun... Donostia, Bilbo eta Gasteizeko mandatarien dirusaria, umeak zaintzeko inudeena, labain eta guraizaren salneurria eta abar luzea omugari betetzeraino.

Ehundaka urtetan garrantzia haundikoa izan zen Bergarako merkataritza. **B**

40 urte ezkonduta

Mari Tere Etxanizek eta **Honorio Sampietrok** beraien ezkontzaren **40. urteurrena** ospatu zuten joan zen maiatzaren 24an. Honorioek eta Mari Terek elkarri baietza eman zioten **1958ko maiatzaren** (argazkia egun horretakoa duzue) eta, beraz, elkarrekin igarotako lau hamarkada hauek ospatu berri dituzte. Meza entzun ondoren, seme-alaba, biloba eta familiartekoekin bazkaria izan zuten Lasa jatetxean. Zorionak!



Ekipamendu kulturalak ezagutzen



Maite Pagazaurtundua PSE-EEko parlamentaria BERRIGARAn bisitari izan genuen aurreko astean. Pagazaurtundua, Gipuzkoan, bere alderdiko kultura eta euskara arduraduna da eta Bergarak dituen ekipamendu kulturalak ezagutzera hurbildu zitzaigun. Kultur Etxean izan ondoren, Udaletxean hainbat teknikarekin elkarriketatu zen. Parlamamenteriak itxura ona hartu zion Bergarako egoera kulturalari. Argazkian, **Rufina Olasagasti** Kultur Jestorea eta **Alvaro Esparza** zinegotziarekin BERRIGARako erredakzioan.

Ama 43 urterekin

Mari Fe Liberal bergararrak **Tamara** izeneko haurra izan zuen joan zen **maiatzaren 20an**. Ekainaren 19an 44 urte beteko ditu Mari Fek eta ez da oso ohizkoa adin horrekin haurrak izatea. Zorionez, guztia ondo joan da eta, zesarea egin bazioten ere, ama errekueratuta da jandak. **Jose Zafra** eta Mari Feren hirugarren alaba da hau. Arrasateko ospitalean jaio zen Tamara 3,400 Kg.ko pisuarekin eta etxean guztiak pozez gainezka dira etorri berriarekin... Zorionak!!





COMERCIAL BRUNET

Ozaeta kalea, 11-13 behea - BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. 943 76 31 52 - Fax. 943 76 70 12 - Mobila : 908 77 55 01

**BASERRIKO TRESNEN
SALMENTA, KONPONKETA eta ALOKAIRUA**

Husqvarna

AURKEZTEN DU :

GORLARA IGOERAN BEHIN BETIKO PARTEHARTZAILEAK


Aitor Zabaleta	<i>Lola BMW-EMEC</i>	Garikoitz Ulacia	<i>Renault R-5 GT Turbo</i>
Andres Vilariño	<i>Osella BMW</i>	Iñigo Uria	<i>Renault R-5 GT Turbo</i>
Carlos Egozcue	<i>Formula</i>	Aitor Barrueta	<i>Citroen Ax Sport</i>
Rafael Bereinkua	<i>Formula Martini MK 12</i>	Josep Deperou	<i>BMW M-3</i>
Jesús Santamaria	<i>Formula Ralt RT-30</i>	Ion Peli Larruskain	<i>Citroen AX - Sport</i>
Bernardo Cardin	<i>Lancia 037</i>	Ion Gonzalez	<i>Renault R-5 GT Turbo</i>
Javier Arias	<i>Nissan Skiline</i>	Gerardo del Rio	<i>Renault R-5 GT Turbo</i>
Lebeiti	<i>Renault 5 Turbo</i>	Bernard Lafite	<i>Renault R-5 GT Turbo</i>
Monchu	<i>BMW M-3</i>	Iñaki Aguirre	<i>Renault 11 Turbo</i>
Iñaki Araneta	<i>Ford Sierra 4x4</i>	J.A. Insausti	<i>Opel Kadett</i>
Victor Nieto	<i>Citroen AX Sport</i>	Alfonso Poza	<i>Peugeot 106 Rallye</i>
Andoni Oruezabala	<i>BMW M-3</i>	Asier Garcia	<i>Peugeot 106 Rallye</i>
Jose A. Samaniego	<i>Renault Clio Willians</i>	Arbeiri Alberdi	<i>Peugeot 205 Rallye</i>
Javier Breña	<i>Citroen Saxo</i>	Aitxol Arakistain	<i>Peugeot 205 Rallye</i>
J.M. Gabilondo	<i>Renault Alpine 1600</i>	Xabier Ecenarro	<i>Peugeot 205 Rallye</i>
Mitxel Errecart	<i>Simca Rallye 2</i>	Iñaki Etxeberria	<i>Citroen AX-GTI</i>
Mitxel Iribarren	<i>BMW 528</i>	Antzine Arroyo	<i>Peugeot 205 Rallye</i>
Alberto de Lucas	<i>Renault R-5 GT Turbo</i>	Ricardo Montero	<i>Seat 127</i>

ADI EGON!!

**Gorlara Igoerako sarrerarekin batera
MOTOZERRA BATEN ZOZKETA**

ONCEko zozketarekin batera : 98-VI-12



** Husqvarna
mod. 51**

96.199 pta.ko balorea

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. **Kazetaria:** Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 18 zenbakia. 1998ko ekainaren 5a.

Zurrategiko kioskoa berriztuko dute

Bi epetan egingo dira konponketa lanak

Udalak Zurrategi plazan dagoen musika kioskoa konpontzea erabaki du. Lehenengo fase batean segurtasun arazoak konpontzeko aldaketak egingo zaizkio. Geroago, berriz, aterpearen egitura aldatuko da, itxura oktagonala emanez.

Zurrategi plazan dagoen musika kioskoa berrizteko plana onartu zuen Udalak joan zen astean. Zurrategiko etxeak egin zirenean, etxeak egin zituen eraikuntza-entresak eraiki zuen kioskoa. Etxeak diseinatu zituen arkitekto bera izan zen kioskoaren planoak egin zituena. Orain, ordea, Udalak bere egitura aldatzea erabaki du, eta bi arrazoi nagusi daude horretarako. Batek kioskoaren itxura bera, eta bestetik, segurtasun arazoak. Valen Moñuxek azaldu digunez "kioskoa eraikuntza oso modernoa da eta jende askorentzat «hota eta gogorra". Baina horrez gain, arrisku ugari sortzen ditu Zurrategiko kioskoak. Valenek adierazi digunez, "eraikuntzaren eskailerak gaizki diseinatu daude eta kioskoaren barrote horizontalak kontuan hartuta, umeentzat arriskutsua da".

Lana bi epetan

Zurrategiko kioskoa konpontzeko edo berrizteko lanak bi epetan burutuko ditu Udalak. Hasteko, kioskoaren segurtasun arazoak konponduko dira, eta horretarako, bueltan dauden jarlekuak, baranda eta eskailerak botako dira. Ondoren, eskailera berri bat egingo zaio plaza alderuntz, eta eskaileraren bi alboetara



Honela geldituko da Zurrategiko kioskoa konponketak egin ondoren.

jardinerak jarriko dira, apainketa modura. Eraikuntzaren «hoztasun» hori saihestu nahian, hormigoizko egitura harritz forratuko da eta baranda forjatutako burniz egingo da.

Aldaketa horiek egin eta gero, kioskoaren goiko alde aldatzeko lanak hasi-

ko dira. Valen Moñuxek diseinatutako kioskoak "estilo klasikoa errekuperatu nahi du", aterpe karratua izan ordez oktagonala izango da. Aterpe berria egurrezkoa izango da barrutik eta kanpotik kobrezkoa. Kioskoa inguratzen lorategiak ipiniko dituzte.

■ ■ ■
*Zurrategi plazan dagoen kioskoak
segurtasun arazoak sortu ditu*
■ ■ ■

Piropo eta irain lehiaketa

Idolazek "Piropo eta irain lehiaketa" antolatu du. Parte hartu nahi duten guztiek Gaztetxean, Larrea tabernan eta herriko eskolan ipini diren paneletan idatzu beharko dituzte piropoak edo irainak. Sariak San Pedroten, Kalebarrengo jaietan, banatuko dira. Sagar-dantzaren orduan, gaueko hamabietan, hain zuzen ere. Piropo onenaren eta irain onenaren egileek bi pertsonentzako afaria irabaziko dute. Lehiaketaren oinarrietan jasotzen denez, piropo eta irainak euskara hutsean idatzita egon beharko dute. Epaimahaikoez piropo eta irainen orijinaltasuna eta grazia baloratuko dituzte. Idolaz ez da idatz daitezkeen astakerien erantzule egingo.

Finalista eguna

Ekainaren 14an, eskolarteko finalista eguna ospatuko da Idiazabalen. Idiazabalera joateko ekainaren 8an, astelehenean, eman beharko da izena Arrolaren lokalean; haurrak, berriz, eskolan. David Fresno, Imanol Lizarralde, Julen Larrañaga, Hodei Aranguren, Luis Franco eta Auritz Guridi dira finalista antzuolarrak. Beste guztien artean, kanpin dendak, motxilak eta mendiko materiala zozketatuko dira.

Udaran igerilekuetara

Uda 98 igeriketa kanpainan aritzeko izen ematea zabalik dago. 3-4 urteko haurrek 2.200 edo 2.700 PTA ordaindu beharko dituzte. 5 urtetik gorakoek, berriz, 1.700 PTA edo 2.200. Ikastaroak ekainaren 22tik uztailaren 3ra, uztailaren 6tik 17ra edo uztailaren 20tik 30era izango dira. Orduetara, berriz, 15:00etatik 16:00etara eta 18:00etatik 19:00etara. Izena emateko epea zabalik egongo da plazak bete arte. Informazio gehiago, udaletxean.



Antzuola eta Aiherrakoak kaskara jokoan joan den azarotik.

Antzuolako olinpiadak

Aspaldiko partez, Antzuolako Olinpiadak jokatu dira berriz ere. Gazte-txeak, AKEak eta Sarriegi Taldiak antolatu dituzte eta zapatuan hasiko dira. Taldeka jokatu den txapelketa honek San Pedroak arte iraungo du.

Sei partaideko taldeak arituko dira zapatutik aurrera eta Kalebarrengo jaiak arte herriko olinpiadak jokatzeko. 14 urtera arteko eta 15 urtetik gorako bi mailatan banatu dituzte parte hartzaileak. Antolatzaileek adierazi digutenez, probak era guztietakoak izango dira. "Proba klasikoak eta bitxiak antolatu ditugu. Proba



klasikoen barruan 60 m-ko lasterketak eta oztopo lasterketak izango dira besteak beste. Proba bitxietan, berriz, kanika eta txapa jokoak eta bizikletarekin derraperik luzeena egiteko jokoak antolatu ditugu, batzuk aipatzeagatik".

Olinpiadek Kalebarrengo jaietan izango dute azken txanpa. Antolatzaileek herri probak laga dituzte azken egunerako. Iaz Bergara, Antzuola eta Osintxokoak aritu ziren honelako jokoetan. Aurten, berriz, olinpiadetako parte hartzaileak izango dira txinga jokoan eta harri-jasotzen.

Euskal presoak Euskal Herrira

Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako plataformak aurkezpena egingo du. Orain dela sei bat hilabete bitzen hasi zen talde honek jadanik herriko 20 talderen babesa jaso du. Herriko Udala, elkarteak, alderdi politikoak, enpresetako komiteak eta kultura taldeak atxikitu dira Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako plataformara. Hauexek

dira plataformaren aldarrikapen nagusiak: zigorraren hiru laurdenak beteta eta gaixotasun sendaezinak dituzten presoek askatasuna eskatzea eta sakabanaketa salatzea. Hau dena azaltzeko eta herrian ezagutzera emateko, plataformak ekainaren 12an, eguakitzan, aurkezpena egingo du herriko plazan arratsaldeko 20:00etan.



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Egoitz Jauregi, AKEko kidea

“Lewis eta Pedroso ditut gustoko”

Iaz, lesio garrantzitsu bat izan zuen Gipuzkoako txapelkun titulua lortu ondoren. Aurten laugarren izan da Euskal Herriko gazte mailako txapelketan, luzera jauzian. 5,89 m-ko jauzia egin zuen.

Espero zenuen lortutako emaitza?

Kontutan izanda Gipuzkoa mailan ordiziar batek eta nik lortzen ditugula markarik onenak, zerbait lortzea espero nuen. Bera bigarren gelditu zen eta ni laugarren. Orain dela bi urte 3. gelditu nintzen eta Gipuzkoako txapelketan, bigarren. Orduan bai poztu nintzela! Orain ere ilusioa egin dit, baina orain horretara nindoan.

Zein da zure errekorra?

6,14 metro, baina txapelketan 5,80 egin nuen.

Noiz hasi zinen atletismoan?

Orain dela bost bat urte. Hasieran denetik egiten nuen. Gero poli-poliki espezilizatzen hasten zara gehien atsegin duzun kirolean. Orain, luzera jauziaz gain, jauzi hirukoitza eta 100 m-ko lasterketetan ere ibiltzen naiz. Hala ere, nahiago dut luzera jauzia, jauzi hirukoitza baino. Hirukoitza zailagoa da. Joan zen urtean egin nuen lehenengo aldiz, eta Gipuzkoako 5.a


izan nintzen. Hala ere, luzera jauzian hobetzea nahiko nuke, hori da eta atsegin dudana.

Zein da zure gustuko janzilaria?

Carl Lewis eta Iban Pedroso ditut gustoko.

Zenbat lagun ari zarete AKEan?

Hasi nintzenean 20 bat lagun genbiltzan, baina orain 6-7 bat. Oso gutxi... mutilak futbolera joaten dira eta neskak, ba... ez dakit. Horren jende gutxi egotea arriskutsua da taldearen etorkizunerako.



Egoitzek 5.80 metroko jauzia egin zuen Anoetan.

Non entrenatzen duzue?

Antzuolan ez daukagu instalazio egokirik. Zumarragara edo Donostiara joaten gara. Korrika egiteko ere, Antzuolako pistak 300 m dauzka eta normalean 400 m edukitzen dituzte. Gainera, hain jende gutxi egonda, ezin da txapelketarik antolatu. Dirulaguntzak jasotzea ere zaila da horren jende gutxi egonda.

■ ■ ■
Hain jende gutxi egonda, ezin da txapelketarik antolatu eta dirulaguntzak ere txikiagoak dira...
■ ■ ■

Olinpiadak antolatu dituzue herriko kirol taldeekin batera. Jendeak parte hartuko du?

Gure asmoa horixe da eta gero bateren batek atletismo taldean sartu nahi badu, fenomeno! Jendea behar dugu. Orain ezin dugu taldekako txapelketetan parte hartu, oso gutxi gabiltzalako. Gogo dut taldeka aritzeko.

Zer esango zenieke gazteei atletismora animatzeko?

Txapelketa denetan esaten digute, Antzuolakoren bat baldin badago seguru zeozer irabazten dugula. Esaten dute maila ona daukugula... baina hemendik aurrera ez dakit zer pasatuko den. Jendea animatzen baldin bada talde polita osatu genezake. Umeak animatzea nahiko genuke, beste denak futbolekin dabil-tza eta!

ANTZUOLAKO UDALA



Antzuolako Udalak behinbehineko ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA kontratatzeke deialdia egin du.

Izena emateko epea EKAINAREN 19an bukatuko da.

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Maximo Aristi

Bareñonean zapatentzako larrua egiten

1790. urtean hasi omen zen larrugintza industria Antzuolan. Lau lantegi ziren herrian eta garrantzi handia izan zuen lanbide honek garai batean. Hori dela eta, Antzuolako Udalak, Antzuola Herria bekaren 3. deialdian larrugintza ikertzea proposatu du. Bekak 500.000 PTako dirulaguntza aurreikusten du. Eskariak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaituko da. Maximo Aristi larrugintzan aritu zen eta berak kontatu dizkigu larrugintzaren inguruko xehetasunak.



Z

enbat urtez aritu zinen larrugintzan lanean?

1944an hasi eta 1966xan alde egin naban.

Zenbat lantegi aritzen ziren larrugintzan?

Ni hasi nitzan 1944an eta Olan, Telleria, Galarza eta Arbulu anaiak eta Bareño anaiak zeren. Bareñok egiten zeban zapaten azpirakua eta gaiñerakua. Telleria, Olan eta Galarzarian guarnizionerixia (maletak, zaldixen silak, kartutxerak eta gerra denporetan...) egiten zeben.

Nora saltzen zenuten larrua?

Leku askotara egiten zan. Madril, Alikante, Zaragoza, Logroño... Hango zapata fabriketara egiten zan larrua. Gerra ostian biajantiak etortzen zien material billa eta orduan Ondarren jende asko ibiltzen zan. Hango tabernia jatetxia zan eta lo egitteko lekua be bazeukan. Jende asko etortzen zan.

Zapaten azpikua kiloka saltzen zan eta gaiñekua "pies cuadrados" esaten jakon neurrira neurtzen zan. Esaten zeben 30 x 30 edo neurtzen zebala.

Ze larru erabiltzen zen?

Ganauan narrua ibiltzen zan. Zapata azpikua egitteko ganau haundixana izeten zan, sendua bihar izeten zan da. Gaiñekua be sendua izeten zan baiña makiña batekin erdibi egitten zan kome ni zan beste.

Nola zen ofizioa?

Azala esaten jakona Zumarragara ekartzen zan trenian. Fabrikako errotara ekarri eta xehetu egitten zan. Gero potzutan ipiñi eta denpora asko bihar izeten zeban kurtitzeko. Etaritzen zanian pasta bat egitten zan eta haura emoten jakon. Hurrengo egunian illia jun egitten jakon. Gero haragixa kendu, garbittu, neurrira ipiñi eta kurtiziñuan hasi. Ze kolore nahi ziñuan koloria emon bihar izeten zan; gero sikatu eta ixa sikatuta zeguanian makiñetan pasatu. Gero zihero sikatu eta makiñetan dana tiratzen zan. Sikatzen zanian tintia emoten jakon.


Nola asmatzen zenuten kolorea?

Kolore igual iguala gaitza zan, norbera aprobe-

tan harutz aillegau bihar zan da. Narrazi bat hartu eta gutxi gora bera egin koloria eta «honek gorrixa bijok» eta gorri pixkat bota edo hori pixkatxo bat... Koloriak urakin egitten zian. Norberak egin bihar izeten zeban eta egitten zanian norberak apuntauta eukitzen zeban.

Ze jantzi erabiltzen zenuten?

Narruzko amantal haundi bat, norberak egindako narruzko polaiñak eta txokoluak -egurrezkuak- ibiltzen giñutzen. Apreta ta guzti jazten zien txokoluak, dana ura izeten zan da.



Maximo Aristi Bareñonean aritu zen 22 urtez.

■ ■ ■
 “Narruzko amantala, norberak egindako polainak eta txokoluak ibiltzen giñutzen”
 ■ ■ ■

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxoeko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA

BERGARA

☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

EGAÑA


Era guztietako arotz lanak

**Tarima eta parketa jartzea
 Zoruen kutxilatua eta barnizatuak**

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GAILUR

taberna eta
 gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
 Tf. 943 78 70 32

Pazkua jendetsuak

Euskal Bizikletako txirrindulariei ongi-etorria emateko eguraldi zerbait hobetu zen. Izugarritzko jendetza bildu zen Bergarako sarreran eta Ibargarai kalean jarritako meta inguruan. Laurent Jalabert-ek irabazi zuen helmugan (aurrekoan ere frantziar batek, Louviot-ek lortu zuen garaipena Bergaran) eta berarentzat izan ziren sari gehienak eguakitzean, nahiz eta azken sailkapenean 3. postuarekin konformatu behar izan zuen Ouceko txirrindulariak. Zapatuan lasterketaren irteerak ikusmin handia piztu zuen eta *gaupasero* bat baino gehiago hurbildu zen txirrindulariei azken aholkuak eta animoak ematera.

Bestalde, Bitorianatxoren jaitsieran, Elay lantegiko langileak enkartelada egin zuten San Martin plazan Jose Luis Elkororen askatsuna eskatzeko.

Sukaldari bikainak

Eguakitzean "Evita" musikalaren es-treinuak jende ugari bildu zuen Frontoian. Alfredo Gonzalez Chirlaque ez zegoen guztiz pozik Frontoian lortutako soinuarekin baina esan behar da ikusleek erabat gozatu zutela Orkestraren lanarekin.

Zapatu goizean bi lehiaketa jokatu ziren; alde batetik 9 urtetik 14 urtera bitarteko 70 bat gaztetxok hartu zuten parte plastika sariketa librean. Hiru kategoria bereiztu ziren eta talde bakoitzean 10 lagun saritu zituzten. Beraz, ia gehienek sariren bat eramane zuten etxera. Bestalde, Plazan, 11 elkarte izan ziren lehiakadaldaritzako lehiaketan. Epaimahaiak beharrezko dastaketa egin ondoren, Gure Ametsa elkarteko Donato Ormazabalek eta Pedro Ricok eramane zuten lehen saria; bigarren Pikupeko Jose Mari Larrañaga eta Luis Mari Beistegi sailkatu ziren eta hirugarren saria, azkenik, Umore Ona elkarteko ordezkarientzat izan zen. Pepelu Agirrezabalek eta Jose Inazio Larrañagak ere orogaria jaso zuten.

Bitorianatxoren jaitsierak izugarritzko txaparrada ekarri zuen atzetik aurtan. Urtean zehar armarioan gordetako jaietako brusek uretarako erresistentzia frogatu behar izan zuten hasiera-hasieratik. Eguraldiak ez du Pazkuetan batere lagundu eta euria ia eguneroko bisitaria izan dugu.





Bisitari ugari

Bestalde, zapatuan inoiz baino bisitari gehiago izan genituen herrian. Udaltzaingoak emandako informazioaren arabera, "zapatu eta domekakoa gehiegizkoa izan zen eta kotxeak edozein lekutan aparkatzen zituen jendeak. Baliteke beste urte batzuetan baino jende gehiago izatea aurtengo Pazkue-tan". Domeka arratsaldean, hain zuzen, Bikote Gazteentzako Euskadiko Dan-tza Txapelketa jokatu zen Plazan. Ikus-



le ugari bildu zen bertan eta parte hartu zuten 24 bikoteek maila bikaina erakutsi zuten. Azkenean, Janire Urbieta bergararrak eta Xabier Azurmendi zegamarrak osatutako bikoteak lortu zuten garaipena; bigarren tokian Iosune Fernandez eta Alex Torre bergararrak sailkatu ziren eta hirugarren postua Lara Franco eta Urko Mitxelena Erreteriko bikotearentzat izan zen.


Bost belarriko zezenketa

Pentekostetako txirrindularitza saria-ren 63. edizioa ere jokatu zen domekan. 23 urtez azpiko txirrindulariek (137 guztira) 142 kilometroko ibilbidea bete behar izan zuten. Azken kilometroetan 9 lagunez osatutako talde bat osatu zen lasterketa buruan eta bost kilometro falta zirela Aitor Diaz basauriar-rrak eraso definitiboa jo zuen. Taldeko lana zalantzan jarritz, Diazek ekiporik gabe irabazi zuen Bergaran. Born taldeko Oskar Askasibar bigarren geratu zen eta hirugarren postuan Roberto Lozano.

Udal Musika Bandak domekan eta astelehenean jo zuen Espo-loian. Asteleheneko emanaldian San Miguelpe elkarteko martxa estreinatu zen eta Alfredo Gonzalez zuzendariak berak konposatutako partitura entregatu zion Andoni Azula elkarteko presidenteari.

Arratsaldeko txekorketan, berriz, zezenplazara hurbildutako jendeak primeran pasa zuen. Azken orduko istripu batengatik David Calleja toreroak ezin izan zuen etorri eta bere postua Raul Canok bete zuen. Baina benetako figura Javier Castaño izan zen. Salamancarrak bigarren eta laugarren txekorrekin bina belarri moztu zituen eta, jendearen txalo zaparradaz lagunduta, zezen plazari bi buelta eman behar izan zizkion amaieran. Canok ez zuen zortetik izan lehendabiziko txekorrarekin eta hurrengoari egindako lanagatik belarri bat eman zioten, nahiz eta jendeak gehiago eskatu.

Ezin ahaztu jaietan Ondo Bihurtu kolektiboak Udaletxean gerra zibilari buruz zabalduko erakusketa. Asko eta asko izan dira bertara hurbildutakoak eta guztiak bat etortzen ziren erakusketaren kalitatea goraiatzeko.





Pilota feria ikusgarria

Martitzenean, koadrilen egunean, Mjaigiroa izan zen benetako protagonista egun osoan zehar. Eguerdian 200 bat lagun bildu ziren Plazan antolatutako herri bazkarian. Aurretik, Amnistiaren Aldeko Komiteak antolatutako ekitaldian, preso, errefuxiatu eta deportatuei omenaldia eskeini zitzairen. Senideak presoen argazkiekin igo ziren Plazako eszenatokira, eta omeladia jaso zuten, txalapartarien eta bildutakoen txaloen laguntzaz. Jarraian luntxa banatu zen. Bestalde, zapatuan presoek euskal herriratzearen aldeko manifestazioa egin zen herriko kaleetan.

Martitzenean ere, Pentekostetako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren Frontoian. Alustiza eta Errasti errez nagusitu zitzairen Salaberria eta Arretxeri 22 eta 6ko emaitzarekin. Baina kroni-


ken arabera feriako partidurik onena Barriola eta Rairen arteko eskuz banakakoa izan zen. Barriolak 22 eta 18 irabazi zuen eta 201 pilotakada onak zenbaitu ziren partiduak iraun zuen 58 minututan. Azkenik, promesen binakako txapelketan Agirre eta Zearrak 22 eta 9 irabazi zieten Urionaguena eta Pinedori. Aurreneko bi jardunaldietan sarrera kaxkar samarrak izan baziren ere, finaleko egunean sarrera bikaina izan zen Frontoian. Zoritarrez, Etxanizek eta Zezeagak ez zuten euren zalegoaren aurrean maila onik erakutsi eta domekan 22 eta 5 galdu zuten Alustiza eta Errasti txapelduen aurka.

Bi istripu astelehenean

Bukatzeko eta Udaltzaingoak emandako informazioaren arabera, zorionez ez da istilu larrik izan Pazkue-tan. Hala ere, astelehenean bi gertaera izan ziren. Alde batetik Bideberrin jarritako komunek eta alboan zegoen Nissan Vanette furgoneta batek sua hartu zuten eta oraindik ez da ezagutzen suaren jatorria. Furgoneta zein komun portatilak kiskalduta geratu ziren suaren ondorioz. Sua amatatzera Ertzantza, udaltzainak, suhiltzaileak eta Garbileko langileak ere inguratu ziren. Astelehen arratsaldean, berriz, ordubiak aldera, Fraisko-zuri 4ko lehen pisuan bi kol-



txoik sua hartu zuten eta suhiltzaileak, ertzainak eta udaltzainak bertaratu behar izan ziren pisuan zegoen emakume elbarritua askatzeko. Balkoiaren kontra eskilara jarri eta pisura igo ondoren etxeko atetik atera zuten emakumea. Zorionez ez zen ezer larrik gertatu. B



Ipintzako futbol Txapelketa eguaztenean hasi zen

Eguaztenean eman zitzaion hasera Ipintzako futbol txapelketari. Lehendabiziko aldiz, neskek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Nesketan bi maila bereiztuko dira: alde batetik, kadete maila, 14-16 urte bitartekoentzat eta, bestalde, senior maila, adin mugarik gabekoa. Lehen multzoan, Azkenak, Baleike, Komando Piperrak eta Las Rasca-mantas irituko dira eta, bigarrenan, Biko-Bokategia, Eztakit, Gamma Rai eta Potzu Ta Zapaburuak.

Joaneko eta itzuliko partiduak jokatu dira eta multzo bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatu dute, uztailearen 22an. Partiduak Ipintzan jokatu dira, zazpietatik aurrera eta zati bakoitzak 30 minututakoa izango da. Nesken kasuan, zelai erdia erabiliko da bakarrik.

Eguaztenean jokatu ziren partiduetako emaitzak



Uda inguruan, kuadrilen arteko futbola, berriz ere Ipintzan.

hauek dira: Biko Bokategia 3-Gamma Rai 3; Eztakit 1-Potzu Ta Zapaburuak 3; Azkenak 0-Baleike 5.

Mutiletan 22 talde

Mutilei dagokionez, taldeak lau multzotan banatu dira. A multzoan, Angiozar, KIB, Shaktale, Manitou eta Etengabē. B multzoan, La Juve, Amilotx, Mongatxurak, FACUTA eta Elgetako FO-FO-FO. C multzoan, Gu-Geu, La Beccia Kukuxumu-

su, Game Over, Bildurbarek Opel/Lam eta Altos Pornos. Eta azkenik, D multzoan, Ezinleike, Xurruapak, A Ze Flaxa-La Guipuzcoana, In-ser Coin, Matxakategi eta Arloteak-Oilagorra.

Partiduak buelta baka-rreara jokatu dira eta zati bakoitzak 35 minutu iraun-go du. Multzo bakoitzeko bi onenak sailkatuko dira final laurdenetarako. Partiduak zazpietatik aurrera jokatu dira. Finala, uztailearen 24an izango da. **B**

Eskola Kiroleko sariak banatu



Joan zen eguakitzean banatu ziren Eskola Kiroleko sariak Bitorianatxoren jaitsieraren ondoren. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, neska-mutilak ilusio haundiarekin eskuratu zituzten sariak. Edu Orgaz begiralea, Begoña Payas, Eskola Kiroleko teknikaria eta Xabier Zabaleta Kirol zinegotzia arduratu ziren sari banaketaz. Eskubaloi, saskibaloi eta futbol txapelidunek jaso zituzten sariak. **B**

Labegaraietako futbito txapelketa



partiduak

LIGAKO PLAY-OFFETAKO FINALAK

Zapatuan barruan:

18:30: Mongatxurak-Bar Canalejas

Arb.: Antolaketa Batzordea

NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA

Zapatuan

Labegaraieta Kiroldegian:

17:30: Zutaz Pentsatzen-The Road Island

Arb.: Antolaketa Batzordea

Domekan

M Altuna Institutuan:

12:00: The Road Island-Azkenak

Arb.: Antolaketa Batzordea

argi!

Sari banaketa

Partidu amaieran sari banaketa egingo da. Play-offeko txapelidun eta txapelidun ordeaz gain, honako talde hauek jasoko dituzte sariak: A Ze Flaxa Etxagi, Manitou, Autoberezi eta Txipiron. Kopako finala datorren asteburuan jokatu dute Mongatxurak eta Manitou taldeek.

Toki aldaketa neskenentzat

Nesken Futbito Txapelketan, domekako partidua Miguel Altuna Institutuan jokatu da, kiroldegian Euskadiko Gimnasia erritmi-koko Txapelketa izango delako.

Irakurleekin zuzenean

AGUSTIN ARANZABAL, selekzioaren kontzentrazioetik



Agustin Aranzabal Realeko jokalaria bergararra Frantziako Munduko Txapelketan izango dugu. Aste honetatik hasi eta Españako selekzioaren bidea amaitu bitartean berak emango digu mundialeko gorabeheren berri orrialde honetan. *Allo, allo?*

Puente Viesgoko kontzentrazioa amaitu ondoren, gaur (eguna) abiatuko gara Frantziara. Atzo Ipar Irlandaren kontrako partiduan 45 minutu jokatzeko aukera izan nuen eta hasieran pisakat nerbioso zelairatu arren, nahiko ondo amaitu nuen partidua. Egia esateko, kontzentrazio egunak nahiko aspergarriak izan dira. Lehendabiziko egunak lasaiagoak, errekuperatzekoak izan ziren eta hemengo bainuak fenomeno etorri zitzaizkigun. Arazorik gabeko kontzentrazioa izan da; ondo jan eta lo ere primeran egin dugu. Azkenengo astean goiz eta arratsaldean entrenatu izan dugu eta kontzentrazioa tokitik ez dugu apenas itertzeko aukerarik izan, batez ere jarraitzaile mordo bat gainean izan ditugulako. Atzo Aznar-en bisita ere izan genuen kontzentrazioan eta mundiala irabazi behar genuela esan zigun.

Logelan Iban Camporekin nago. Donostiatik ezagutzen nuen, bere

anaia ere laguna dut eta ondo kontzentratzen gara biok. Bestela, taldeko guztiak ibiltzen gara elkarrekin (Joseba, Kiko, denak...) eta oso giro ona dago. Kazetari piloak daude gurekin eta beti daukazu elkarriketaren bat egin beharra baina, beste jokalaririk batzuekin konparatuz, niri nahiko pakean uzten didate. Denbora hila, musika entzuten (Dover eta horrelakoen zintak ekarri ditut) edo hotelean ditugun jokoeekin (billarra, pinpona eta horrelakoak) pasatzen dugu. Amorren kontuari oihartzun handia eman zaio eta argi dago Van Gaalen adierazpenak lekuz kanpokoak zirela.

"Clementek astebukaeratik aurrera mundialean pentsatzen hasteko esan digu. España faboritoen artean dago"

Oraindik ez dugu beste selekzioetako bideorik ikusi. Clementek ez digu horrelakorik agindu baina gure kontura partiduren bat ikusi dugu Eurosport katean, Nigeria eta Yugoslabiaren artekoa esate baterako. Mundialerako faboritoak betikoak izango direla uste dut: Brasil, Italia, Alemania, Argentina... España ere multzo horretan egotea espero dut. Nigeria ere behin eta berriz aipatzen dute medioetan baina ez dut uste aurre-aurrean sartuko direnik.

Clementek astebukaera honetatik aurrera mundialean pentsatzen hasi behar garela esaten digu. Guri tokatu zaigun multzoa zailenetakoa dela esango nuke. Lehendabiziko partidua, Nigeriaren kontrakoa, oso zaila izango da baina espero dut afrikarrak menderatzea. Behin lehen fase hori gaindituz gero, edozer gauza gerta daiteke, partidu bakarrera jokatzen baita hortik aurrera. Baina gure ekipoa ondo ikusten dut.

Pena eman dit jaietan ez egoteak baina lagunek eta arrebak komentatu didatenez oso giro ona izan da. San Martzialetarako ez banaiz heltzen, final laurdenetan aurrera egin dugun seinale izango da... Ikusi egin behar. Hurrengora arte. **B**

Aprobetxatu oporrak
GIDA BAIMENA
ateratzeko

 **ARRAÑAGA**
A U T O E S K O L A

Izena ematean
%10EKO BEHERAPENA
Gaszte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

Gorlako Auto Igoera domekan

Urtero antolatzeako asmoa du Bergara Racing taldeak

Aspaldiko partez, Gorlako bideak kotxeen lasterketa jasoko du domekan. 1993. urtetik ez da antolatzerik izan.


Aurtengoa zortzigarren igoera izango da eta Juan Mari Aranzabal Bergara Racing taldekoak azaldu digunez, "orain arte ez bezala, urtero antolatzea espero dugu eta jaien inguruan antolatuko dugu aurrerantzean".

Bidea 08:45etan itxiko da

Antolatzaileek aurreratu dutenez, goizeko 08:45etik aurrera ez da kotxerik pasatzen lagako. Bedera-tziak inguruan, partehartzai-leen aurkezpena egingo da Aranerrekan eta, hamarretan, entrenamenduen lehen txandari hasiera emango zaio. Ondoren, lehen txanda ofiziala jokatu da 11:30ak aldera eta, jarraian, bigarrena. Irteera puntua, trenbide zaharreko zubia pasatu eta 300 metrora izango da eta helmuga, berriz, azkenengo *paella* pasatu eta 20 metrotara. Auto gidariek, bihurtuz betetako bost kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta batez besteko %7,8ko malda gainditu beharko dute.

Euskadiko Txapelketarako puntuagarria

Juan Mari Aranzabalek azaldu digunez, "aurten, Gorlako Igoera Euskadiko Txapelketa barruan izango da. Orain dela bost urte Espainiako txapelketarako puntuagarria izan zen, bai-



Aitor Zabaleta, azken edizioko irabazlea, da lasterketa irabazteko faborito nagusia.

na antolaketa ibili ginenok neka-neka eginda eta erreta bukatu genuen; horregatik, etorkizunean Euskadiko txapelketara mugatzea pentsatu dugu. Horrela, aurrekontuari aurre egitea erreza goa da. Udalak laguntza handia eskaini digu eta hainbat etxe babeslek ere lagundu digu".

Gorlako Igoera erabakiorra

Euskadiko txapelketako frogetan bi txanda korritzen dira baina bi txandetako denborak ez dira gehitzen. Bietatik onena hartzen da kontuan. Espainiakoan, berriz, bi txandetako denbo-

rak gehituz ateratzen da bukaerakoa.

Domekan Bergaran jokatu dena, Euskadiko txapelketako laugarren proba izango da. Guztira, bederatzi dira eta, orain arte, Arrate, Iturreta eta Jaizkibeleko igoerak jokatu dira. Une honetan, sailkapen orokorrean, Victor Nieto dago lehen postuan 66 punturekin; Aitor Zabaleta dago bigarren 64 punturekin eta, hirugarren, Andres Vilariño 50 punturekin. Gorlako Igoera erabakiorra izan daiteke Euskadiko Txapelketa izandaterako orduan. Azken edizioko irabazlea Aitor Zabaleta izan zen, nahiz eta

azken marka Egozkuek lortu, bi minutu eta hogeitalau segundurekin.

30 gidari lasterketan

Guztira 30 gidari inguru izango dira domekan irteera puntuan. Aitor Zabaleta Espainiako txapelketa irabazteko faborito nagusia. Andres Vilariño egongo den ala ez zuzen jakiterik ez dago, arazo mekanikoak direla medio. Luis Chillida, berriz, etortzeko zen baina Jaizkibelen istripua izan ondoren, ez dago korritzeko moduan. "Chillidak, zoritxarrez, istripu ikusgarria izan zuen Jaizkibelen. Kotxea guztiz apur-

Probako errekorra Pantxo Egozkuek ezarri zuen 1993ko edizioan (2 minutu eta 24 segundu); halere, Zabaletak irabazi zuen orduan eta aurten ere bera da faboritoa

tuta gelditu zen. Bestalde, gidari onenariako ekar-tzen saiatu gara. Maila bikaina izango dela uste du-gu. Eguraldiak laguntzen izango da. Ea jendea ere animatzen den. Sarrera bos-tehun pezeta izango da”.

Bergarako gidariak

Begarako herriak badu zer esan auto lasterketan. Aurtengo Igoeran hiru bergararrek korrituko dute: Aitor Zabaleta Espainiako txapel-duna, (Lola BMW-EMEC kotxearekin), Jabi Bretaña (Citroen Saxo) eta Alberto De Lucas (Renault R-5 GT Turbo). Bestalde, Iban Rodriguez eta German Fernandez ere izango dira.

Era askotako autoak

Gorlako Igoeran, bi ka-tegorietan banatzen diren mota ezberdinetako autoak ikusiko ditugu. Zabaleta eta Vilariño bigarren kategoria-ko C taldean izango dira eta erabiltzen dituzten kotxeak baretak eta formulak dira. Lasteketako kotxe azkarrenak hain zuzen ere.



Eguaztenean aurkeztu zen VIII. Gorlako auto igoera.

900.000 pezeta saritan

Lasterketaren ondoren, arratsaldeko ordu biak alde-ra, sariak banatuko dira San Martin plazan. Sari ugari izango dira kategoria ezber-dinen arabera. “900.000 pe-zeta inguru banatuko dira saritan eta trofeoak ere izango dira. Hamar sari izango dira: irabazleak 100.000 pezeta jasoko ditu, bigarrenak, 70.000 eta hiru-garrenak, 50.000”.

Bergara Racing taldea

Gorlako III. Auto Igoera zela eta sortu zen Bergara Racing. Harrez gero, urtee-tan zehar Gorlako Igoera

antolatzen ibili dira taldeko-ak. “Orain dela bost urte pa-sa zena gertatu ondoren, animoa piskat jaitsi zitzaigun, baina beste inor Gor-lako Igoera antolatzen anima-tu ez denez, berriz ere lana-ri ekin diogu. Esan bezala maila txikiago batean baina ilusio handiz. Bestalde, Igo-erak jarraikortasuna lortzen badu, Bergarako herriaren-tzat bikaina izango litzate-ke. Arraten, esaterako, zale-tuek egutegian markatuta daukete igoerako eguna, eta urtero antolatzen denez, ospea lortu du. Ea Bergaran ere berdina gertatzen den”.

Aurtengo edizioak 3 mi-lioi pasako aurrekontua dauka. B

Euskadiko Gimnasia Txapelketa

Gimnasia Erritmiko-ko Euskadiko Txapelke-ta jokatu da domekan Labegaraieta Kirolde-gian. Goizeko 10:45etan, jubenil mailakoak aritu-ko dira eta arratsaldeko 16:30etan, junior maila-koak. Azken honetan, Ariznoa Kirol Elkarteko Jaione Igartua eta Ane Miren Fernandez, Gi-puzkoako txapeldu or-deak, arituko dira. B

Atletismo frogak Agorrosinen

Haur, kadete eta ju-nior mailakoentzako atletismo froga kombina-tuak jokatu dira zapa-tuan Agorrosinen. Atle-tismoa, luzera jauzia, he-siak eta erreleboak egin-go dira. Azken hauek, 60, 100 eta 1.500 metro-ko distantzietan. B

Xake txapelketak

Haurrentzako xake partidak jokatu dira zapatu goizean Zabalo-tegin. Arratsaldean, ber-riz, xake azkarreko Eus-kadiko txapelketa joka-tuko da Miguel Altunan. Domekan, taldekako xa-ke txapelketa, “XXVII. Bergarako Hiria Saria” jokatu da goizeko 9:30etan, toki berean; 10:00etan, berriz, Euskal Herriko iparralde eta he-goaldekoen arteko xake lehia eta arratsaldean xake partida azkarren txapelketa irekia. B



Urteera puntuan ez da ikuslerik izango. Araneko paellatik gora kokatu ahal izango dira zaletuak.

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisua salgai S. Pedron.
943 76 52 72.

Barrenkalean
apartamentua salgai.
943 76 56 41/76 04 69.

Pisua salgai Maduran.
943 76 41 07.

Pisua salgai Zabalotegi
dorrean. 943 76 33 93.

Etxea salgai Osintxun.
Erdi-amueblatua.
943 76 49 74.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Deba. 943 76 19 18 40

Soraluzen. 943 12 18 20.

Antzuola. Amueblatua.
943 76 62 52.

Erosi

Erreformarik gabeko
pisua erosi nahi dut.
943 76 30 57.

Errentan hartzeko

Pisua hartuko nuke
alokairuan.
943 76 72 00 (Joana).

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/
MOTOAK**

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Errentan emateko

Pisua alokairuan
Alcoceber-en udan.
943 76 12 14.

Pisua Laredon, udan.
943 76 13 86 (gauzez).

2. GARAJEAK

Saldu

Torrekua. 2 plaza.
943 76 28 24.

Garajea salgai Burdiña-
ten. 943 76 40 74.

Aranerrekian (2 plaza
itxita). 943 76 06 96.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterreka. 943 76 2457.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Salgai. 943 76 40 03.

Garaje bikoitza S. Lo-
rentzon. 943 76 58 00.

Errentan emateko

Garaje bikoitza Torrekoi-

an. 943 76 30 32.

Aranerrekia. 943 764654.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Ibar-
garain. 943 76 16 38.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara
alokatuko genuke.
943 76 50 00.

Garajea alokatuko
nuke. 943 76 05 17.

Burdiñate inguruan

garajea errentan
hartuko nuke.
943 76 70 63.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alo-
kairuan Masterrekian.
150m². 943 76 11 89.

Lokala salgai
A. Flemingen.
943 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai
Martokian. 943 76 25 67.

Taberna bat salgai edo
alokairuan Antzuolan.
943 76 60 16.

4. LANA

Eskaintzak

Zaharrak zaindu edo
etxeko garbiketak egin-
go nituzke. 943 76 00 90.

Kliniko laguntzaileak
gaisoak eta helduak
zaintzen ditu.
943 76 64 47.

Neskak orduka lan egin-
go luke. 939 47 25 84.

Haurrak zainduko
nituzke. 943 76 04 34.

Lanak ordenagailuz
pasatzen ditut.
943 76 38 71 (Larraitz).

Neska euskaldun batek
haurrak zainduko
lituzke. 943 76 56 92.

Denda batean, etxeko
lanetan edo zaharrak
zaintzen lan egingo
nuke. 943 75 17 43.

Arratsaldeetan haurrak
zainduko nituzke.
Esperientzia.
943 76 03 76 (Maite).

Uztailen zehar umeak
zainduko nituzke.
943 76 07 50 (gauzez).

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

Francisco J. Lopez de Munain
Medikua, Medikuntza fisikoko eta Errehabilitazio espezialista

KONSULTA ETA ERREHABILITAZORAKO TRATAMENDUKO ZENTRUA

Aseguru pribatuekiko hitzarmenak
Lagun Aro, Previa, Trafiko-istripuetakoak eta abar.

Fraskozuri 8, 1-A. BERGARA. Tf. 943 76 71 74.

LEGO WATCH SYSTEM

Orain zeure eskura Etxeberrian.
Bidekurutzeta 16 BERGARA. Tf. 943 76 23 94 - 943 76 12 65.

ETXEBERRIA erlojutegia

ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 943 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

Etxeko lanak egin edo haurrak edo zaharrak zainduko nituzke marti-tzenetik eguakitzera, 16:00etatik aurrera. 943 76 29 14 (Ana).

Antzuolan pertsona bat behar da umeak zain-tzeko irailetik aurrera. 943 76 65 00.

Eskaerak

Neska euskalduna be-har da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 04 56.

Ingelesetik euskarara itzulpenak egiteko lagun bat behar da. 943 76 65 12.

Etxez etxe errepartoak egiteko ibilgailua duen pertsona behar da. 943 76 11 12.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

OHO klaseak ematen dira Antzuolan. 943 78 71 32.

Ingeles klaseak. 943 76 53 88 (Rosa).

OHO eta ingeles klaseak ematen ditut. 943 76 17 18 (Jesus).

Mate klaseak. 943 76 03 72 (Nerea).

Majisteritzako ikasle batek OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

Fisika, informatika eta mate klaseak. 943 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Eskaerak

Alemaneko klase partikularak hartuko nituzke. 943 76 28 33 (Iker).

2. DBHko mate klaseak hartuko nituzke. 943 76 13 11 (21:00etatik aurrera).

2. REMeko ikasleak Historiako klaseak hartuko lituzke. 943 76 41 99.

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Golf TDI kotxea salgai. 943 76 64 70 (Mikel).

Peugeot 205 kotxe gorria salgai. 943 76 21 70 (Ander).

Roller jet karabana. 5 plaza. 943 76 44 05.

T.E.C. King karabana. 4 plaza. 943 74 31 37.

Peugeot 309 SR automobila salgai. 100.000 Km. 943 76 14 64.

Seat Ibiza (BI-BF), diesela. 943 76 09 12.

Opel Kadett (SS-AC) salgai. 943 76 16 31.

Golf GTI (SS-AH). 16 balbula. 943 76 33 26.

Kawasaki GPX 600 R motorra. 943 76 09 17.

Erosi

Remolkea erosiko nuke. 943 73 19 60.

7. ANIMALIAK

Saldu

Hispaniel-breton txakurkumeak salgai. 907 93 72 71 (Pablo).

Hiru koloretako setter txakurkumeak salgai. 943 76 53 92.

8. DENETARIK

Saldu

Avid bogzorailuak

salgai. 943 76 76 90.

Logela salgai: bi ohe txiki, muelle eta guzti. 943 76 57 05.

Motorrean ibiltzeko emakumezkoaren gor-tex BMW traje berria salgai. 943 76 09 17.

Mendiko bizikleta salgai. 943 76 49 39.

Idazmakina elektrikoa salgai. 943 76 10 63.

Kanpin denda familiarra salgai. 943 76 37 96.

Kitarra elektrikoa eta anplifikadorea salgai. 943 76 34 31.

Bizikleta estatikoa salgai. 943 76 07 88.

Sherpa Orbea bizikleta salgai. 943 76 52 76.

Erosi

Diska zaharrak (txikiak zein haundiak) erosten ditut. Deitu telefono honetara: 943 52 65 77.

Akordeoi bat erosiko nuke. 943 76 57 03.

Galdu

Urrezko pultsera galdu dut. 943 76 26 79.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

ARRAIN SALTZAILEA, 1. mailako ofiziala
Deba Garaia. 8619/1

SUKALDARIA
Elorrio. 8423/1

AUTOEN MEKANIKARIA
Bilbo. 8166/6

MAKINA-ERRAMINTAKO MANTENIMENDURAKO MEKANIKARIA
Deba Behea. 9091/5

ELEKTRONIKA TEKNIKARIA
Donostia. 9082/2

PINTORE APRENDIZA
Bilbo. 7998/2

KONTROL NUMERIKOKO TORNEROA
Bidaxoa Behea. 8705/1

ETXeko LANETARAKO LANGILEA
Bilbo. 9179/0

KONTROL NUMERIKOKO BI FRESADORE
Irun. 8684/2

ETXE BARRUETARAKO DEKORATZAILEA
Goierri. 6295/3

DATU BASEKO (SQL SERVER) IRAKASLEA
Donostia. 8635/6

OKINDEGIRAKO LANGILEA
Bilbo. 8985/4

MEKANIKA INJINERITZAKO TEKNIKARIA
Igorre. 9147/3

HIRU ALIKATATZAILEA
Bakio. 8991/2

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Diruzaintza eta kontabilitate orokorreko lanak egiteko **EKONOMI EDO ENPRESA ZIENTZIETAN DIPLOMADUNA** kontratatu behar da 1998ko uztailearen 1etik 1999ko urtarrilaren 31ra arte.

Instantziak eta dokumentazio osagarria **EKAINAREN 10eko 15:00ak BAINO LEHEN** Deba Garaiko Mankomunitatean aurkeztu beharko dira.

Deba Garaiko Mankomunitatea: Arrasate pasealekua 5, behea. **ARRASATE.** Tf. 943 79 33 89 /99.




BOLINTXO ZURRADERO

Adi! Adi! Adi!

Saloura bidaia bat zozketa-tuko dugu 98-6-30ean:
Astebetekoa -
2 lagunendako -
3*** hotela - Pentsio osoa -
Port Aventura-rako 2 sarrera.

Zurradero 2, behea. Tf. 943 76 01 26



Super BM Supermerkatuak arrain-saltzaileak behar ditu eskualderako.
Cristina Ochoarekin jarri harremanetan.
943 63 33 32.

ONENA TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

Literatur lehiaketako sari banaketa zapatuan


233 lan aurkeztu dira XIII. edizio honetara; sari banaketa Zabalotegin

Bihar, zapatua, eguerdiko 12:00etan egingo da XIII. Literatura Lehiaketako sari banaketa Zabalotegiko aretoan. Udaleko euskara zerbitzuak antolatutako lehiaketara 233 lan aurkeztu dira aurten.

Bai guztira eta bai taldeka ere, joan zen urtean izan ziren kopuru oso antzerakoak izan dira aurten. Guztira bost talde bereiztu dira, 7-8 urteko neska mutikoetatik eta helduen taldera arte. Lehen taldean, 58 lan aurkeztu dira; bigarrenan, 64; hirugarrenean, 86; laugarrenean, 14 eta bosgarren taldean 16. Azken honetan, bi sail bereiztu dira aurten: ipuina eta olerkia eta bederatzi eta zazpi lan aurkeztu dira hurrenez-hurren. Aurtengo ediziooko nobedadea, 16 urtetik gorakoaren artean, olerkientzako sail berezia osatu dela izan da. Antolatzaileek genero minoritario hau bultzatu nahi izan dute horrekin.

Beste urte batzuen antzerako maila

Epai-mahaia Miguel Angel Elkorobereziabarrek, Juan Martin Elexpuruk, Esteban Antxustegik, Eli Payrosek eta Arantzazu Loidik osatu dute aurten. Orokorrean, beste urte batzuekin konparatuz, antzerako maila izan dela adierazi dute. Zerbait nabarmentzekotan, lehenengo taldean, gaztetxoentan, eta bosgarrenean, 16 urtetik gorakoetan, maila ona izan dela eta laugarren taldean, 13, 14 eta 15 urtekoetan, beste urte batzuetan baino lan gutxiago eta kalitate maila baxuagoak aurkeztu direla da. Txikien mailan ustekabeak izan dira, egileen adina kontutan izanda, lan harrigarriak aurkeztu direlako.



Aipagarria da, bestalde, 5. taldeko bi irabazleak, Roberto Izagirre eta Jon Sanchez, iaz maila berean lehen eta bigarren izan zirela.

Zapatuko sari banaketa ekitaldian herriko ikastetxeetako neska-mutikoei prestatutako ikuskizunak ere izango dira. Sariak, Udal agintariak eta Udaleko euskara zerbitzuko arduradunek banatuko dituzte.

Liburua

Saritutako lanekin liburua argitaratuko da datorren ikasturte hasieran ikastetxeetan banatzeko eta aurtendik aurrera, saria jaso ez duten egileen artean Ipurbeltz, Kili-Kili eta Entzun aldizkarien urtebeteko harpidetzak zozketatuko dira. Asmoa, aldizkari horiek irakurtzen animatzea eta lehiaketan parte hartzen eta idazten animatzea da. B

SARIDUNAK:

1. TALDEA

1. Zuhaitza eta saxoa. **Mireia Amasorrain**
2. Arrosa eta kraelina. **Gabriel Guerra**
3. Joxe Olinpiadetan. **Olatz Fernandez**

2. TALDEA

1. Hartz handiaren istorioa. **Alaitz Menor**
2. Amonaren erretratoa. **Irati Altuna**
3. Zerura igotzeko hiru probak. **Uxue Agirre**

3. TALDEA

1. Txorimaloa eta enara. **Joxe Fernandez**
2. Baso ezkutua. **Izargi Vega**
3. Arrautzarik egin ezin zuen oiloa. **Ana Moñux**

4. TALDEA

1. Gaixotasun banatzailea. **Irene Santamaria**
2. Arreta bila. **Gorka Buruaga**
3. Lagunak betiko. **Nuria Fernandez**

5. TALDEA (ipuina)

1. Elkartasun mezua. **Roberto Izagirre**
2. Maite (96.eko uda). **Naiara Tabuenka**
3. Ekainak 31. **Andoni Rodriguez**
4. Arrosa, urretxindorra eta gaztea.

Samuel Garcia

5. TALDEA (olerkia)

1. Horregatik, ez galdetu. **Jon Sanchez**



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

MUJIK UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurtzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

Gerrari buruzko pelikulak

Datorren astean ikusteko aukera Novedadesen

**Datorren eguazten eta eguen ilun-
tzean gerra zibilari buruzko hiru pe-
likula eskainiko dira Novedadesen.
Ondo Bihurtu taldeak antolatu duen
erakusketaren inguruan, 1937ko do-
kumental bat eta 1994 eta 1997an
egindako bi filme ikusi ahal izango
dira.**

Eguaztenean, hilak 10, bi pelikula emango dira: lehenengoa, "Frente de Vizcaya y 18 de julio" izenekoa da eta Fet eta Jonsek ekoiztutakoa, 1937. urtekoa. Bertan, Frankoren tropek Bizkai-ko frontearen hartu zuteneko irudiak ikusi daitezke: Otxandio, Eloorrio, Bergara, Angiozar, Elgeta sunstis-tua, Eibar sutan, Markina, Durango, Lekeitio, Gernika erabat sunstisuta, Fran-koren tropak Bilbora sartzen e.a. Do-kumentalean, narratzaileak txikizioen egile errepublikarrak aurkezten ditu.

Honen ondoren, "Altsasu 1936" izenburuko pelikua eskainiko da. 1994ean Elena Tabernak zuzndutakoa da eta Fernando Guillen Cuervo, Iñaki Aiera edota Marta Juaniz aktoreak dira protagonistak. Gerra garaiko herri lan-gile batean kokatuta dago eta bertan suertatu ziren gertakariak eta Gerra Zi-bilean elizak gatazka belikoaren aurre-an izan zuen jokabidea erakusten da, apaiz baten ikuspuntutik.

Hurrengo egunean, "La vieja me-moria" titulodun filmea botako da. Iaz egindako pelikula da eta gerra ostetik demokrazia garaira arte, 40 urtetan, ge-rra galdu zutenen memoria kolektibo-ak jasan zuen errepresioa aztertzen da protagonista izan zirenen bakarrizke-ten bitartez. Emanaldiak 20:00etan ha-siko dira eta pelikulen aurkezpena Juantxo Madariaga historialari eta ira-kasleak egingo du. **B**



Elgeta gerra denboran, erabat sunstisuta tropa nazionalen erasoaldiaren ondoren.

■ salduenak / maiatza

LIBURUAK

Euskaraz

1. GROENLANDIAKO LEZIOA
Bernardo Atxaga. Erein
2. OHERAKO HITZAK
Pako Aristi. Erein
3. ZOZOAK BELEARI
Andoni Egaña-Jon Sarasua. Alberdania
4. GURE BARRIOA. 1975
Xabier Mendiguren. Elkarlanean
5. ARGIZARIAREN EGUNAK
Angel Lertxundi. Alberdania

Erdaraz

1. LA BOTICA DE LA ABUELA
Telebistako saioari buruzkoa. Integral
2. O CESAR O NADA
Manuel Vazquez Montalbán. Planeta
3. LISTA DE LOCOS Y OTROS ALFABETOS
Bernardo Atxaga. Siruela
4. EL LIBRO NEGRO DEL EUSKERA
Joan Mari Torrealdai. Ttartalo
5. EL CORAZÓN TARDÍO
Antonio Gala. Espasa
Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

DISKOAK

1. KALANBREAK
Gozategi
2. WORLD DANCE
Los 30 pelotazos
3. ARDI LARRUZ
Latzen
4. ARENA EN LOS BOLSILLOS
Manolo Garcia
5. LUIS EDUARDO AUTE
Aire/Invisible
6. OSKORRI & THE PUB IBILTARIA 2
Oskorri
7. HAY CUENTOS AÚN POR INVENTAR
Doctor Deseo

Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Libertatea. 2. Dotoretasun. 3. Ibai txikia. Infusio mota. 4. Dozena erdi. Aldendu aditzaren infinitiboa. 5. Eguberriaren aurreko gaua. Berrogeita hamr. Nitrogenoa. 6. Bokala. India. Friutu tropikala. 7. Isladak. Toki. 8. Istua. Aluminioa. Partitiboaren ezaugarria. 9. Kontsonantea. Iparraldean, iskanbila. 10. Kanpo, landa. Galdetzaile mota. Urrea.

Goitik behera

1. Ezin amestu daitekeena. 2. Arrantza tresna. Gar. 3. Helizearen itxurakoak. 4. Bete. Zintzoa. Lehena eta azkenekoa. 5. Hegazti tropikala. Karrika. 6. Sailak. Bizkaieraz, gehiegi. 7. Atzizki femeninoa. Bostehun. Alkoholen bukaeran. Fosforoa. 8. Korrupzioa. 9. Neukan. Bete, zeharo ase. 10. Emakume izena. Nau.

Soluzioa

1. Amegaitza. 2. Sarea. Su. T. Goitik behera
10. At Zer Au.
9. Z. Kalapira.
7. Isiak. Leku. 8. Tua. Al. Rik.
5. Babona. L. N. 6. A. In. Kokoa.
3. Erreka. Tea. 4. Sei. Alden.
1. Astatasuna. 2. Matiasun.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da baserri honen izena?

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Zabala** jatetxean izango dute afaria.




Aurreko aleko saria, **Moises Etxaniz**tzat izan da: Sirimiri jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Moisesi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **San Blas**. Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-B**.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izena-deitura: Telefonoa:

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!



**ZABALA
JATETXEA**

Labegaraieta z/g
Tf. 943 76 42 57

Kotxe eta motorzale amorratua, txikitatik izan du motor kontuetarako zaletasuna eta duela zortzi urtetik Larrañaga autoeskolako irakaslea dugu. Orain, jendeari gidatzen erakusteko, pazientzia eta umorea ezinbestekoak direla diosku.

Zenbaterik ikasi dute zurekin gidatzen?

Zaila da kalkulatzeko, baina 34 urtetan 153.000 karnet egin ditugu autoeskolan.

Gidatze karneta lehendabizikoan ateratu zenuen?

Bai, 18 urterekin. Motorrarena 16rekin.

Nork erakutsi zizun gidatzen zuri?

Aitak. Bost urterekin kart bat egin zidan eta 10ekin kotxea gidatzen nuen.

Zer behar da gidari irakaslea izateko?

Pazientzia eta umore ona.

Zer da gauzarik zailena erakusteko?

Trafiko barruan mugitzea.

Zer da zailagoa, teoria ala praktika?

Gaur egun biak.

Multarik jarri dizute sekula?

Bai.

Abiadura mugak errespetatzen dituzu?

Egia esateko, batzuetan ez...

Zelako aseguru mota erabiltzen duzu kotxerako?

Arrisku osorakoa.

Kotxea ala motorra?

Motorra nahiago.

Urtean zenbat kilometro?

Kotxean 60.000 bat; motorrean, 20.000.

Istripurik izan duzu?

Behin, motorrarekin.

Oraingo kotxe bat?

Alemaniar markakoa eta japoniar motorreko edozein.

Klasiko bat?

Porsche 356 (James Dean horrelako

Imanol Larrañaga

batean hil zen).

Motor bat?

BSA ingelesa.

Formula 1 ala Munduko Motor

Txapelketa?

Motorrekoa.

Criville ala Checa?

Checa.

Nork irabaziko du Mundiala?

Doohan-ek.

Eta Gorlako Kotxe Igoera?

Zabaletak.

Zirkuitu bat?

Ikusteko, Montmelo; ibiltzeko, Jerezekoa.

Animalia bat?

Txakurra.

Zenbat ordu egiten duzu lo?

Zazpi bat.

Janari bat?

Pasta.

Bertute bat eta defektu bat?

Defektua, puntuala ez naizela; bertutea gutxitan haserretzen naizela.

Mania bat?

Ordena, gauzak bere tokian egotea.

Besteengan zer apreziatzen duzu?

Egizale izatea.

Zer egin duzu jaietan?

Eurodisneyn izan naiz lagun batzuekin. B



**BERGARAKO UNEDen UDAKO
IKASTARO INTENTSIBOAK**

**INGELES
FRANTSESA
ALEMANA**

M A T R I K U L A Z A B A L I K !

Ekainaren 24tik uztailaren 14ra.

- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.
- ADIN GUZTIAK: HAUR, GAZTE ETA HELDU
- EGUNERO 3 EDO 4 ORDI!

INFORMAZIOA:

Bergarako UNED.

San Martin plaza z/g (3. pisua)

☎ 943 76 06 87





Beti-Ondo taldea, 1947

Aste honetan Ipintzako futbol txapelketari hasiera eman zaio baina herriko futbol txapelketak ez dira gaurkoak. Horren adibide goiko argazkia duzue. Erretratu 1947an aterata dago, Agorrosingo futbol zelaian, eta bertan Beti-Ondo taldeko hamaikakoa ikus dezakezue. Argazkian agertzen diren jokalariek 20 urte inguru izango zituzten garai hartan eta ziur primeran arituko zirela futbolean. Aurkakoak ere ez ziren makalak izango; Beti Ondorekin batera, Izarra, Piratas, Lokatza, Madura edota Jo ta apurtu tal-

deak aritu ziren lehian Agorrosinen.

Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Ramon Etxaniz, Juan Mari Leturia, Iñaki Arrieta, Ino Muniategi, Ignacio Balzategi, Jesus Unamuno "Pitito", Jose Mari Ugalde "Txarita", Isaac Larrañaga, Andres Alzelai, Luis Arrondo eta Iñaki Sotil.

Argazkia: Pedro Aperribai

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!



Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Udan
ere

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Bergarako
Udal Euskaltegira!



1998ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

ESKAINZA: EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE eta EGA • **ERRITMOAK:** egunean 5 ordu, goizez • 16 urtetik gorakoentzat • **BULEGO ORDUTEGIA:** goizez: 09:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-19:00 • **IKASTAROAREN IRAUPENA:** ekainaren 29tik uztailaren 24ra • **MATRIKULATZEKO EPEA:** ekainaren 8tik 19ra • **BARNETEGIA:** uztailaren 1etik 15era ZERAINEN.




BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tel.: 943-76 44 53

GRUPO **ARKAUZ**

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaketan
Betiko muntaketak



Mitarte 3 • ARETXABALETA • Tf. / Faxa: 943 77 04 55

altzariak

**ERAKUSKETA
BERRIZTUA!**

**ALTZARI-DISEINUA
ETA APAINKETA**



**ZAPATU
ARRATSALDEETAN
ZABALIK!**

Araba etorbidea 20 • ARETXABALETA • Tf. / Faxa: 943 79 23 51

Grupo Arkauzen denak dira abantailak.

Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster, etxera eraman nahi izango duzu.

Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak.